

Euskal Autonomia Erkidegoko 14 eta 18 urte bitarteko biztanleen artean psikofarmakoen kontsumoan dagoen prebalentziari buruzko azterlana



2022ko Abenduak

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD

Aurkibidea

1. Laburpen exekutiboa	3
1.1. Hasierako planteamendua	3
1.2. Metodoa	3
1.3. Emaiza interesgarrienak	4
2. Sarrera	13
3. Metodologia	14
3.1. Iturri eta estatistiken azterketa	15
3.2. Azalpen-eredu teorikoa	17
4. Ikerketaren emaitzak	18
4.1. Psikofarmakoen kontsumoari buruz	19
4.2. COVID-19aren ondoriozko pandemiaren eraginari buruz	25
4.3. Psikofarmakoen kontsumoari buruzko estatistikak Euskadin, 14 eta 18 urte bitarteko pertsonen artean	29
4.3.1 Adikzioei buruzko Inkesta, Eusko Jaurlaritza	30
4.3.2. EAeko Osasun Inkesta. EAEOI	31
4.3.3. Drogak eta Eskola. Deustuko Unibertsitatea	32
4.4. Euskadin 14 eta 18 urte bitarteko pertsonen kontsumo-prebalentziaren alderaketa beste eremu geografiko batzuekin eta bilakaera	40
4.4.1. Beste biztanleria batzuekiko alderaketa	40
4.4.1.1. Europarekiko konparazioa. ESPAD	40
4.4.1.2. Osasuneko Europako Inkesta Espainiarako	44
4.4.1.3. ESTUDES	46
4.4.2. Psikofarmakoen kontsumoaren bilakaera Euskadin. 2014-2020. ESTUDES	59
4.4.2.1. Psikofarmakoen kontsumo-prebalentziaren bilakaera errezetarekin eta/edo gabe	59
4.4.2.2. Psikofarmakoen kontsumo-prebalentziaren bilakaera errezetarik gabe	61
4.5. Osasun-egoeraren pertzepzioa pandemian zehar eta ondoren, eta kontsumoa. Drogak eta Eskola 2022	64
4.6. Azalpen-eredu teoriko bat eraikitzea	68
4.6.1. Euskadin gaur egun kontsumitzen diren substantzien prebalentzia 14-18 urteko gazteen artean	71

4.6.2. Kontsumitzaileen profila ESTUDES 2020	73
4.6.3. Faktore-analisia	88
4.6.3.1. Gurasoekiko harremanak	89
4.6.3.2. Drogen kontsumoarekiko arriskuaren pertzepzioa	90
4.6.3.3. Substantzia desberdinak lortzeko zailtasunaren pertzepzioa	93
4.6.3.4. Lagun-taldeko jokabidea drogen kontsumoari dagokionez	95
4.6.3.5. Drogei buruz behar bezala informatuta egotearen kontzientzia	97
4.6.3.6. Aisialdiaren erabilera	99
4.6.3.7. Diruarekin jokatzea	101
4.6.3.8. Interneten erabilera	104
4.7. Arrisku-faktoreak	106
5. Ondorioak eta etorkizuneko ikerketa-ildoak	114

1. Laburpen exekutiboa

1.1. Hasierako planteamendua.

Txosten honen bidez aztertu nahi dira *Euskadin 14 eta 18 urte bitarteko biztanleen artean psikofarmakoen kontsumoan dagoen prebalentziari* buruzko dokumentazioa eta iturri estatistikoak.

Azterketa horren helburua da jakitea gaur egun kontsumoan zer egoera dagoen, bai eta denboran zer bilakaera izan den ere, eta erabilera horrekin lotuta daozen faktoreak zehazten saiatzea. Ikerketak kontsumoan zer prebalentzia dagoen argitu nahi du, jolas-kontsumoa egiten dutenen eta medikuak aginduta kontsumitzen dutenen arteko zifrak bereiziz.

Gainera, hori egiten duten 14 eta 18 urte bitarteko pertsonen ezaugarri soziodemografikoak ikertu nahi dira, eta ezaugarri horien eta kontsumoaren artean loturarik badagoen zehaztu nahi da. Zeharka, txosten osoan, genero-ikuspegitik jasotzen da informazioa, eta substantzia horien kontsumoan genero-desberdintasunik ba ote dagoen edo ez argitu nahi da.

1.2. Metodoa

Azterlana psikofarmakoen kontsumoaren inguruko alderdiei buruz argitaratutako dokumentaziotik abiatuta garatu da, honako gai hauetan, besteak beste: genero-desberdintasuna kontsumoan, hipnosedatzaileen kontsumoaren gorakada, gazteak eta kontsumo ez-medikoa, edo COVID-19ak substantzia mota horien kontsumoan izan duen eragina. Gainera, psikofarmakoen kontsumoari buruzko informazio kuantitatiboa biltzeko tresna nagusien azterketa egin da. Inkesta horietan, psikofarmakoen kontsumoa eta gutxi gorabehera normalizatuta dauden beste droga batzuk sartzen dira.

Ikerketak, alde batetik, substantzia horien kontsumo-prebalentziaren gaur egungo erradiografia bat erakusten du - Euskadiko 14 eta 18 urte bitarteko biztanleriaren artean-, zenbait aldagai kontuan hartuta: sexua, adina, bizilekuaren habitata, eskola-ezaugarriak, familia-ezaugarriak edo egoera jakin batzuekiko jarrerak. Bestalde, eta ezaugarri berberak kontuan hartuta kontsumoen prebalentziak duen bilakaera eta beste eremu geografiko batzuekiko alderaketa erakusten ditu.

Konparazio hori EAEn bertan, Estatu mailan eta Europan egindako estatistiken emaitzetan oinarrituta egiten da. Horietako bakoitzak unibertso bat du eta gauzatzeko maiztasun desberdinak ditu, eta kontsumoak zenbait ikuspuntutatik aztertzen ditu, adin-tarte desberdinak erabiliz, galdera berean errezeta duten eta errezeta ez duten kontsumoak lotuz edo bananduz, kontsumo-maiztasun desberdinekin, kasu batzuetan denbora-maiztasunaren arabera metatutako kopuruekin eta beste batzuetan ez... Horregatik, oso garrantzitsua da ikustea une bakoitzean datuak zer estatistikatatik datozen; izan ere, itxuraz antzeko formulazioak dituzten arren desberdinak dira. Metodologia orokor gisa eta ahal izan dugunean, gure proiektuaren segmentura hurbildu nahi izan dugu, 14 eta 18

urte bitarteko pertsonak, beste adin batzuetako datuak bereiziz eta une horretan aipatzen ari den kontsumo mota azalduz; horrela, irakurketa agian astuna egin daiteke, baina funtsezkoa dela iruditzen zaigu.

Kasu guztietan, txostena egin den unean bertan argitaratuta zeuden azken datuak erabili dira.

1.3. Emaidza interesgarrienak.

Aztertu diren txostenen azterketatik, psikofarmakoen kontsumoari buruzko ideia batzuk laburbilduko ditugu. Lehenengo ideia zera da: substantzia jakin batzuekiko mendekotasuna aipatzerakoan, psikofarmakoen kontsumoa ez zela kontuan hartzen. Gerora frogatu da, hala ere, horien erabilera iraunkorrak edo jarraituak mendekotasuna eragin dezakeela. Profesional medikoek hasiera batean agintzen dituzten sendagaiak dira, eta haiek eskuratzeko bide nagusia medikuen errezeta da. Agindu hori, batzuetan, autokontsumo batean ondorioztatzen da, eta autokontsumo hori norberarena izan daiteke, edo familiako beste kide batzuen.

Substantzia horien kontsumoaren prebalentziak gora egin du azken urteotan, arazoak eta sufrimendua oro har medikalizatzeko joeragatik eta industria farmazeutikoek duten eraginagatik.

Adin-talde guztietan, kontsumoaren prebalentzia handiagoa da emakumezkoen artean gizonezkoen artean baino. Teoria desberdinen arabera, emakumezkoen kontsumo handia ez da irizpide mediko objektiboen ondorio, baizik eta genero-estereotipo eta -agindu nagusien eraginarena.

Legezko substantziak izateak, adibidez tabakoa eta alkohola, garrantzia du gizarteak adikzioari buruz duen pertzepzioan; izan ere, substantzia horien kontsumoa ez da problematikotzat hartzen heroina edo kokaina bezalako substantziak kontsumitzen diren neurri berean, marjinalagoak direla ematen duelako.

Nerabe eta gazteen artean, psikofarmakoei eta horiek kontsumitzeko arriskuari buruzko informazioa falta dela ikusten da. Orokorrean mutilen artean beste substantzia mota batzuen ondorioak esperimintatzea, drogatzea edo gozatzea helburu duen kontsumo bat dagoela ikusten da; nesken artean, berriz, eguneroko arazoak beren gain hartzearekin lotura handiagoa du kontsumoak. Errezetarik gabeko kontsumoaz ari garenean, emakumezkoen artean espazio pribatuan gertatzen da, eta horrek prebalentziaren ezagutza maila zailtzen du. Mutilen artean, ordea, kontsumoa publikoa izan ohi da.

Psikofarmakoen kontsumoaren prebalentziak gora egin du azken urteotan, bai biztanleria osoan, baita gazteen artean ere.

COVID-19ak eragindako pandemiak etxeko esparrura zokoratu zuen hipnoseditzaileen, lasaigarrien eta lo-eragileen kontsumoa. Mendekotasun-jokaerak, antsietateak -permisibitate handiago bati lotuta-, gazteek etxean zutena kontsumitzera bultzatu zuten. Normalean kontsumitzen dituzten substantziak eskuratzeko zaila egiten zaienez, antzeko ondorioak dituzten beste substantzia batzuk bilatu dituzte. Nerabeen artean eman den egoera hori nazio mailan eman da, baita Euskadin ere.

Psikofarmakoen kontsumoaren prebalentzia orokorra, sexuaren arabera, gaur egun.

Psikofarmakoen kontsumo-prebalentziaren egungo egoera ezagutzeko, ESTUDES estatistika erabili dugu. Estatistika hori bi urtetik behin egiten da, 1994. urteaz geroztik, Bigarren Hezkuntzako 14 eta 18 urte bitarteko ikasleen artean. Bere finantzaketa eta sustapena Drogen Plan Nazionalerako Gobernuaren Ordezkaritzak (DPNGO) egiten ditu, eta autonomia-erkidegoetako Gobernuen (Drogei buruzko Plan Autonomikoak eta Hezkuntza Sailak) eta Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren laguntza du.

ESTUDESen helburua balio handiko informazioa biltzea da, horrela, politikak diseinatu eta ebaluatu nahi baitituzte drogen kontsumoa, beste adizio batzuk eta kontsumo horretatik ondorioztatutako arazoak ekiditeko. Helburu nagusi horretatik abiatuta, gure azterlaneko helburuekin bat datozen helburu espezifiko batzuk ezartzen dira, bai jasotzen dituen datuengatik, baita 14 eta 18 urte bitarteko pertsonak biltzen dituen azterlaneko biztanleriarengatik ere.

Horregatik, eta txosten hau egin zen egunean argitaratutako azken txostena zelako, edizio desberdinetako mikro datuak erabiltzen ditugu, nazionalak zein Euskal Autonomia Erkidegorako espezifikoak direnak, psikofarmakoen kontsumoaren prebalentzia ezagutzeko, errezetarekin edo errezetarik gabe.

Ezagutzen dugun azken egoera ESTUDES 2020 edizioari dagokio Euskadiko mikro datuekin, eta egungo egoeraren erreferente gisa erabiltzen duguna da.

Azken 30 egunetako kontsumo-maiztasuna hartu dugu erreferentziatzat; izan ere, horrek esan nahi du kontsumoa ohikoa dela eta/edo azken 12 hilabeteetan noizbait egiten den kontsumoa baino ohikoagoa dela, eta baliteke ez errepikatzea. Gainera, azken 30 egunetako kontsumoen balioak dira beste azterketa batzuetara gehien hurbiltzen gaituztenak. Horrela, honako pertsona hauek hartuko ditugu kontuan:

- ❖ ***Psikofarmakoen kontsumitzaileak***, oro har, azken 30 egunetan noizbait baino maiztasun handiagoarekin kontsumitu dituztela aitortu dutenak, hau da, azken 30 egunetan noizbait kontsumitu duen galderari erantzun diotenak (aldi metagarriak direnez, egunero edo ia egunero kontsumitzen dutenak ere sartzen dira).
- ❖ ***Oro har psikofarmakoak kontsumitu ez dituztenak***, azken 30 egunetan noizbait baino maiztasun txikiagoarekin hartu dituztela diotenak dira; hau da, azken 12 hilabeteetan inoiz kontsumitu ez dutela edo noizbait kontsumitu ez dutela erantzun dutenak.
- ❖ ***Errezetarik gabeko psikofarmakoen kontsumitzaileak***, azken 30 egunetan noizbait baino maiztasun handiagoarekin hartu dituztela onartu dutenak dira; hau da, azken 30 egunetan errezetarik gabe noizbait kontsumitzeari buruzko galderari baiezkoa erantzun diotenak dira (aldi metagarriak direnez, egunero edo ia egunero kontsumitzen dutenak ere sartzen dira).
- ❖ ***Psikofarmakoak errezetarik gabe kontsumitzen ez dituztenak***, azken 30 egunetan noizbait baino gutxiagotan hartu dituztela diotenak dira: hau da, azken 12 hilabeteetan errezetarik gabe inoiz kontsumitu ez dutela edo noizbait kontsumitu ez dutela erantzun dutenak.

Neska-mutilen ezaugarri soziologikoen, eta haien kontsumo-tipologia eta haien arteko lotura-mailaren arteko loturak zein diren ezagutzeko, **maiztasun gurutzatuen azterketa** egin dugu.

Hasteko, gaur egun, 14 eta 18 urte bitarteko gazteen artean, EAEn gehien kontsumitzen diren substantzien ranking orokorra erakustea beharrezkoa iruditzen zitzagun.

Euskadin, 2020an eta orokorrean, hipnosedatzaileak dira 14 eta 18 urte bitarteko biztanleen artean gehien kontsumitzen den 4. substantzia, alkohola, tabakoa eta haxixaren ondoren. Errezetarik gabeko substantziaz ari bagara, 7. postua betetzen du.

<u>Mutilen rankinga:</u>	
1º	Alkohola
2º	Haxixa
3º	Tabakoa
4º	Ikasketarako substantzia estimulatzaileak errezetarik gabe
5º	Zigarreta elektronikoak
6º	Lasaigarriak/baregarriak
7º	Lasaigarriak errezetarik gabe
8º	Legez kanpoko drogen eragina imitatzen duten substantzia berriak
9º	Kokaina hautsa
10º	Estasia

<u>Nesken rankinga:</u>	
1º	Alkohola
2º	Tabakoa
3º	Haxixa
4º	Lasaigarriak/lasaitzaileak
5º	Ikasketarako substantzia estimulatzaileak errezetarik gabe
6º	Lasaigarriak errezetarik gabe
7º	Zigarreta elektronikoak
8º	Legez kanpoko drogen eragina imitatzen duten substantzia berriak
9º	Estasia
10º	Opioideak

Nesken artean, aurreko tauletan ikus daitekeen bezala, orokorrean 4. postuan kokatzen da, baina errezetarik gabe 6. postuan kokatzen da, substantzia guztien artean.

Mutilen artean, kontsumitutako substantzien rankingean kontsumoa zertxobait baxuago kokatzen da, 6. postuan modu orokorrean, eta 7. postuan errezetarik gabe kontsumitzen denean.

Errezetarekin eta/edo gabe hartutako psikofarmakoen kontsumoaren prebalentzia 14 eta 18 urte bitarteko gazteen artean Euskadin, oro har % 6,7an kokatzen da, eta horien artean, % 71,6 emakumezkoak dira. Emakumezkoen artean, ehunekoa % 9,6koa da, eta mutilen artean, berriz, % 3,8koa. Kontsumo-prebalentzia handieneko adinari dagokionez, mutilen artean 16 urtekoak dira, eta nesken artean 17 urtekoa. 18 urteko pertsonen lagina oso txikia da estatistikan, gainerako adinetakoa baino adierazgarritasun gutxiago du.

10.000 biztanletik beherako udalerrietan substantzia horiek gutxiago kontsumitzen direla ikusten da.

Egiten dituzten ikasketei dagokienez, normalean kontsumitzen duten pertsonen % 49,4k DBHko ikasketak egiten dituzte. Inkestatutako laginean, horien portzentajea % 50 baino haundiagoa da. Kontsumitzen duten pertsonak ikasten ari diren zentroaren titulartasunari dagokionez, inkestatutako pertsonen % 66,7k zentro pribatuetan egiten ditu ikasketak, baina Euskal Autonomia Erkidegoan jasotako lagina guztizkoaren % 63,5ekoa dela aipatu behar da.

Errezetarik gabeko kontsumoari dagokionez, kontsumoaren prebalentzia orokorra % 2,7koa da, eta horietatik % 66,6 emakumezkoak dira. Gainerako ezaugarriek kontsumoaren antzeko balioak dituzte orokorrean, bai mutil eta nesken artean prebalentzia handiena duen adina, gehien kontsumitzen dutenek egiten dituzten ikasketak eta bai ikasketa-zentroaren titulartasuna.

Kontsumitzaileen familien **ezaugarri sozioekonomikoei** dagokienez, modu orokorrean eta errezetarik gabe kontsumitzen duten pertsonen familia-egoerak antzekoak dira elkarren artean, eta desberdintasun berberak dituzte egoera orokorrarekiko eta kontsumitzen ez dutenekiko.

Gurasoen artean langabezia dauden pertsona gehiago aurkitzen ditugu eta gutxiago etxetik kanpo lan egiten dutenak, kontsumitzen ez duten gazteen artean baino. Kontsumitzen duten pertsonen gurasoen ikasketa-maila, kontsumitzen ez dutenena eta datu orokorra baino pixka bat baxuago da. Guraso gutxiago aurkitzen ditugu goi-mailako ikasketak dituztenak, eta guraso gehiago daude lehen eta bigarren mailako ikasketak dituztenak.

Kontsumitzaileek, orokorrean, beren familiaren errenta-mailari buruz duten pertzepzioak batez bestekoaren azpitik sentiarazten ditu.

Aztertzen den beste alderdi bat **ikasketen aurrean erakusten duten jarrera** da, eta lortzen dituzten emaitza akademikoak. Ildo horretan, **errezetarekin eta/edo errezetarik gabe kontsumitzen** duten nesken eta mutilen artean, % 18,5ek piper egiten dute, proportzio handiagoan mutilek, batez besteko orokorraren eta kontsumitzen ez dutenen gainetik. Bataz besteko ohiko nota gisa bikain kalifikazioa % 14,5ean kokatzen da, eta kontsumitzaileen artean, berriz, % 6,2koa. Gutxiegi kalifikazioa, oro har, % 3,8koa da, eta kontsumitzen dutenen artean, berriz, % 6,2koa. Ikasturte bat errepikatu izanari dagokionez, % 17,3k baietz esan du, orokorra eta kontsumitzen ez dutenak baino 6 puntu gehiago.

Errezetarik gabe kontsumitzen duten nesken eta mutilen artean, % 33,3k piper egiten du, orokorra baino 20 puntu gehiago, eta mutilen artean kontsumitzen dutenetatik 45,5era iristen da. Ez dago bikainik ateratzen duen neskarik edo mutilik. Gutxiegi da ohiko nota, errezetarekin edo gabe kontsumitzen denean.

Beste **substantzia psikoaktibo batzuen kontsumoaren aurreko jarreran**, psikofarmakoak **errezetarekin eta/edo errezetarik gabe** kontsumitzen dituzten nerabeen artean, gainerako substantzia psikoaktiboaren kontsumoaren prebalentzia handiagoa ikusten da, orokorrean ematen dena baino eta ez-kontsumitzaileetan baino. **Errezetarik gabeko** kontsumoan egoera bera gertatzen da, beste substantzia mota batzuen kontsumoaren portzentajeak orokorrean ematen direnak baino handiagoak dira, baita errezetarekin eta/edo errezetarik gabe kontsumitzen dutenak baino handiagoak ere.

Substantzia gogorrenak edo marjinalenak mutilen artean kontsumitzen dira.

Interneten erabileraren eta gehiegizko erabileraren ondorioz, neskek beraientzat garrantzitsuak diren gauzak egiteari uzten diote, eta hori arazo bat da, eta kontsumoarekin lotuta dago.

Substantzien kontsumoan oro har mugarri izan den alderdi bat COVID-19aren pandemia izan da. Ildo horretan, Deustuko Unibertsitateko Droga Mendekotasunen Institutuko Drogak eta Eskola galdetegiak, 2022ko bere azken

edizioan, gazteei **COVID-19ak eragindako pandemiaren garaian eta ondoren izan duten aldarte egoeraz** galdetu die. Gure azterketa-unibertsoari buruzko estatistikarik berriena da eta horri buruzko datuak biltzen ditu.

Erantzunak adinarekin eta sexuarekin gurutzatu ditugu, errezetadun eta errezetarik gabeko kontsumitzaileak diren kontuan hartuta. Oro har, COVID-19ak eragindako pandemian, batez bestekoarekiko aldatari buruzko baloraziorik txarrenak 17 eta 18 urteko mutilen eta nesken artean daude. Errezeta duten kontsumitzaileen artean, 15, 16 eta 17 urteko gazteak izan dira gaizki edo oso gaizki gehien sentitu zirenak. Era berean, emakumezkoek, kontsumitzaile nahiz ez kontsumitzaile izan, pertzepzio okerragoa dute beren osasunari buruz.

Prebalentziaren bilakaera denboran zehar Euskadin, sexuaren arabera.

Analisia psikofarmakoen prebalentziak izan duen bilakaeran zentratuta, 2014tik 2020ra bitarteko datuak hartzen ditugu erreferentziatzat, ESTUDES estatistikako mikro datuei buruzko aipamen bera eginez edizio desberdinetan. Ondorio horiek, bakoitza bere azterketa-esparruan, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren gainerako estatistikekin ere bat datoz.

Ondorio hauek atera ditzakegu:

- ❖ Errezetarekin eta/edo errezetarik gabe egindako kontsumoak behera egin du noizbehinkako maiztasunetan, eta gora ohiko maiztasunetan.
- ❖ Lehenengo kontsumorako adina, errezetaduna edo gabekoa, pixkanaka handituz joan da, eta 2020an batez beste 14,2 urtekoa izan da.
- ❖ Bilakaera desberdina izan da mutilen eta nesken artean errezetadun eta/edo errezetarik gabeko kontsumoan. Mutilen artean kontsumoaren prebalentziak behera egin du kontsumo-maiztasun guztietan, eta neskek gora egin dute kontsumo-maiztasun guztietan, 2018tik 2020ra bitartean.
- ❖ Errezetarik gabeko kontsumoak maiztasun guztietan behera egin du, kontsumo handieneko maiztasunetan antzeman ezina izan arren.
- ❖ Errezetarik gabeko kontsumoan, beste tipologian bezala, mutilak dira kontsumoa murriztu dutenek eta nesken artean igo egin da.

2020an, errezetarekin eta/edo errezetarik gabe kontsumitzeak Euskadiko balioak -sexuaren eta adin-tarteen arabera- Estatukoak baino txikiagoak direla erakusten du. Errezetarik gabeko kontsumoen datuetan antzekoagoak dira Euskadi eta Estatuaren artean. Kontsumoaren maiztasuna handitzen denean ere aldea txikiagoa da.

Estatuko gainerako erkidegoekin eta Europarekin alderatzea.

Txosten honen alderdi garrantzitsu bat Euskadiren egoera zein den ikustea da,-beste eremu geografiko batzuekin alderatuta, psikofarmakoen kontsumoaren prebalentziari dagokionez 14 eta 18 urte bitarteko pertsonen artean.

Europarekin egin dezakegun alderaketa 15 eta 16 urteko pertsonetara mugatzen da, eta estatistika 2019an jasotzen da. Une horretan, Euskadin gizonezkoen kontsumoaren prebalentzia Europako batez bestekoa baino handiagoa dela ikus dezakegu, bai 2018an bai 2020an ere. Euskadiko emakumezkoen kontsumoa, batez beste, Europako kopuruarena baino txikiagoa da, baita gizonezkoen kontsumo-kopurua baino txikiagoa ere.

Estatu mailako datuekin alderatuta, batez ere ESTUDESeko datuak erabili ditugu, kontsumo-erabilerak eta kontsumo-maiztasunak berdinak izan zitezten. Alderaketa horrek 2006tik 2018ra bitarteko bilakaera hartu du kontuan.

Bi kontsumo motetan, errezetarekin eta/edo errezetarik gabe eta errezetarik gabe, prebalentziak gora egin du 2006 eta 2010 urte bitartean. Bilakaera hori Euskadin eta Estatu osoan gertatu da, baina gorakada Euskadin handiagoa izan da.

Errezeta eta/edo errezetarik gabeko kontsumoan, aztertutako denbora-tartean emakumezkoen kontsumoa gizonezkoena baino handiagoa izan da beti, bai Euskadin, baita Espainiako batez bestekoan.

Errezetarik gabeko kontsumoan, emakumezkoen kontsumoa mutilena baino handiagoa da oraindik estatuko batez bestekoan eta Euskadin, 2014ra arte. Une horretan, joera alderantzikatu egiten da, eta urte horretan eta 2018an, gizonezkoen kontsumoa handiagoa da Euskadin.

2006an Euskadi autonomia-erkidegoen artean kontsumo-rankingaren beheko erdian egotetik 2018an goiko erdian egotera igaro da bi kontsumo-tipologietan.

Kontsumitzen hasteko batez besteko adinak gora egin du kontsumo mota guztietan, Estatu osoan eta Euskadin. Errezetarekin eta/edo gabe kontsumitzen hasteko batez besteko adina 14,1 urte izanik, eta errezetarik gabe kontsumitzen hasteko batez besteko adina 14,4 urte izanik.

Faktore lagungarriak eta babesleak.

Lehen esan dugun bezala, azterlan honen helburuetako bat psikofarmakoen erabilera horrekin lotutako faktoreak zehazten saiatzea da, kontsumoaren bi alderdietan: medikuak aginduta edo aisialdirako.

Azalpen-eredu teoriko baten eraikuntza **kausalitate anizkoitzaren printzipiotik** abiatzen da, bertan efektuak normalean ez dira kausa bakar batengatik izaten, faktore anitzen intzidentziaren ondorio izaten dira eta. Hemen aztertzen direnak ESTUDES 2020 edizioan parte hartu duten pertsonen ezaugarriekin baliagarriak dira.

Helburu hori lortzeko erabili diren teknikak honako hauek izan dira:

- ✓ **Faktorizazioa.** Helburua, daukagun datu multzoa murriztea da, informazio gutxiagorekin, baina ordezkari handiagoarekin. Helburua, laburbiltzea da, ulertzeko.

Azterketa horren bidez, kontsumoekin zerikusia duten faktoreak honako faktore hauetara murriztu ditugu:

 - Gurasoek nerabeak gauz non eta norekin dauden jakitea, ez kontsumitzearekin lotuta dago, batez ere errezetarik gabekoa.
 - Nerabeek, gurasoen eta lagunen maitasuna jaso dezaketela sentitzea kontsumo ezarekin lotzen da, batez ere errezetarik gabeko kontsumoarekin.
 - Kontsumitzen duten pertsonak, modu ohikoan psikofarmakoak hartzeak arazoak sor ditzakeela uste dute, hala egiten ez dutenek baino neurri txikiagoan.
 - Neskak gehiago jabetzen dira sortzen dituzten arazoez.
 - Emakumeen ustez, psikofarmakoak lortzea errazagoa da, kontsumo-tipologia guztietan, eta errezetarik gabe kontsumitzen dutenentzat aldea esanguratsua da.
 - Legezko drogak edo legez kanpoko drogak kontsumitzen dituzten lagunak edukitzeak, psikofarmakoak kontsumitzearekin zerikusia du.
 - Psikofarmakoak kontsumitzen dituen lagunik ez duten pertsonak % 85,8 dira, errezetarik gabe kontsumitzen ez dutenen artean, eta % 48,5, berriz, kontsumitzaileen artean.
 - Neskek diotenez, kontsumitzen duten pertsona gehiago ezagutzen dituzte mutilek baino.
 - Psikofarmakoak kontsumitzen dituzten neskak eta mutilak, kontsumitzen ez dutenak baino informazio gehiago dutela nabaritzen dute.
 - Ehuneko handiagoan neskek etxeetan gaiari buruzko informazioa jaso dutela uste dute. Hala ere, kontsumitzaile ez direnek baino neurri txikiagoan uste dute ikasgelan gaia landu izan dutela.
 - Errezetarik gabeko kontsumitzea eta Internet hobby gisa erabiltzearen artean lotura dago, eta negatiboa helduentzako bideo-jokoen eta Interneten erabilerarekin, kontsumo-tipologietako edozeinetan.
 - Kontsumitzaileek -batez ere errezetarik gabe kontsumitzen dutenek-, kontsumitzen ez dutenek baino gehiago jokatzen dute online bidez.
 - Internetekin egindako erabilerak eta gehiegikeriak, gauzak egiteari uztera eramaten dute nesken ustez -eta hori arazo bat da-, kontsumoarekin lotuta dago.
- ✓ **Arrisku-faktoreak.** *Fenomeno bat gertatzeko probabilitatea handitzen* duten pertsonen *ezaugarriak*, pertsonalak, familiakoak, taldekoak edo sozialak hartzen ditugu arrisku-faktoretzat. Jokabide baten garapena aurreikustea ahalbidetzen duen ezaugarri bat; gizabanakoak jokabide horien aurrean kalteberatasun-egoeran jartzen dituen aldagai bat.

Pentsatzekoa da arrisku-faktoreek jokabidean eragiteko mekanismo desberdinak dituztela; zuzenekoak edo zeharkakoak izan daitezke, edo beste faktore batzuekiko kalteberatasunaren baldintzapekoak izan daitezke.

Psikofarmakoen kontsumoan arrisku-faktoreak zeintzuk diren zehaztu ahal izateko, lehenik eta behin, ESTUDESen jasotzen diren parametro soziodemografikoen eta jarreraren arteko esanahi-proba bat egin da, psikofarmakoen kontsumoan -errezetaduna eta/edo gabe eta errezetarik gabekoa-, eragin esanguratsua duten edo ez jakiteko, eta, ondoren, kontsumitzeko arrisku-faktoreak zeintzuk diren zehazteko.

Lortutako emaitzak jarraian erakusten dira:

- ✓ **Bi kontsumo motekin** zerikusia duten aldagaiak:
 - Piper egitea
 - Haxixa kontsumitzea
 - Lasaigarriak edo lo-eragileak hartzen dituzten lagunak.
 - Azken 12 hilabeteetan honako esperientzia hauek eduki izana:
 - Gatazka edo eztabaida garrantzitsu bat gurasoekin edo anai-arrebekin.
 - Gauean irten eta hurrengo egunean ikastetxean kontzentratzeko zailtasuna.
 - Hurrengo egunean bezperan izandako sexu-harremanekin damutzea.
 - Preserbatiborik gabeko sexu-harremanak.
 - Baimenik gabeko sexu-harreman baten biktima izatea.
 - Bullyinga jasan izana Internet edo beste bide batzuen bidez.
 - Gurasoekiko harremana nola-halakoa edo txarra da.
 - Lortzea erraza dela uste dutenak
 - Ohiko kontsumoak arazo gutxi edo arazorik sortzen ez duela uste dutenak.
 - Lasaigarriak edo lo-eragileak hartzen dituzten lagunak dituztenak.
 - Bi kontsumo motek, arrisku-faktore gisa, beste substantzia psikoaktiboetako edozein kontsumitzea dute.

- ✓ **Errezetadun eta/edo errezetarik gabeko kontsumoarekin** zerikusia dutenak, baina ez errezetarik gabeko kontsumoarekin:
 - Sexua.
 - Egoera ekonomikoa.
 - Tabakoa erretzea.
 - Ezin gogoratu zer gertatu zen aurreko gauean irten eta gero.
 - Egun oso batez edo egun gehiagoz ikastetxetik kanporatua izatea.
 - Drogei buruz informatuta egotearen sentimendua.

- ✓ **Errezetarik gabeko kontsumoarekin** zerikusia dutenak, baina errezetarik gabeko kontsumoarekin zerikusirik ez dutenak:

- Ikasmaila errepikatu izana.

Bestalde, teknika berarekin, une honetan aztertutako datuekin inolako kontsumoekin **erlazionatuta EZ dauden** faktoreak baieztatu dira:

- Adina.
- Ikastetxearen titulartasuna.
- Nazionalitatea.
- Nota onak ateratzea.
- Alkohola kontsumitzea.
- Irten eta hurrengo egunean ajea izatea.
- Interneten online bidez dirua jokatzeko.
- Dirua aurrez aurre jokatzeko.

2. Sarrera.

2017-2021 Euskadiko Adikzioen VII. Planaren helburu nagusia, ahal den neurrian, mendekotasun-substantzien kontsumoa murriztea da, bai eta mendekotasuna duten jokaerak murriztea ere, pertsonen, haien familien, komunitatearen eta, oro har, herritarren osasunari eragiteaz gain, emakumeei eta gazteenei ere eragiten dielako. Planak, tabakoa eta alkohola bezalako substantzia normalizatuen kontsumoa jorratzeaz gain, estandarizatu gabeko beste substantzia batzuk eta mendekotasun-jokaerak eta -jarrerak ere jorratzen ditu. Horretarako, plana bost jarduera-Ardatz nagusitan egituratzen da:

- ✓ 1. ardatza. Osasunaren prebentzioa eta sustapena.
- ✓ 2. ardatza. Mendekotasuna sortzen duten substantzia eta jardueren eskaintza murriztea.
- ✓ 3. ardatza. Laguntza sanitarioa, soziosanitarioa eta gizarteratzea, asistentzia-beharrei erantzun ahal izateko.
- ✓ 4. ardatza. Ezagutzaren kudeaketa eta Ebaluazioa, adikzioei buruz, beren kausei eta ondorioei buruz ezagutza areagotzeko.
- ✓ 5. ardatza. Adikzioen esparruan inplikaturako eragileen arteko kohesioa bilatzen duen lidergoa eta koordinazioa.

Azterlan hau 4. ardatzaren helburuen barruan kokatzen da. Ardatz horren lehenengo helburua, adikzioen esparruan ezagutzaren garapena bultzatzea da, honako jarduera hauei jarraituz:

- ✓ Adikzio-substantzia desberdinen prebalentzia eta kontsumo-jarraibideak monitorizatzen jarraitzea da, genero-ikuspegiarekin, bai eta jokaerazko-adikzioen eta euskal biztanlerian sortzen ari diren beste arazo batzuen egoera monitorizatzea ere, Euskadi eta Drogak inkestaren, Osasunari buruzko Inkestaren eta osasunean duten eraginari buruzko beste ikerketa-azterlan espezifiko batzuen bidez.
- ✓ Adikzioen arloko ikerketan eta ezagutzan lan egiten duten erakundeekin lankidetzatza egituratua mantentzea.
- ✓ Jokoaren, teknologia digitalen eta bestelako jokaerazko-adikzioen arloko ezagutza garatzea, fenomenoak dimentsionatzeko, jokabideen kontzeptualizazioan eta sailkapenean sakontzeko eta horiek baloratzeko behar diren irizpide komunak ezartzeko.
- ✓ Adikzioen esparruan gizon eta emakumezkoen artean dauden desberdintasun eta berezitasunei buruzko ezagutza sortzea, baita adikzioen prebentzioan eta arretan dauden genero-desberdintasunei buruzko ezagutza ere.

Kasu zehatz honetan, azterketa-gunea 14 eta 18 urte bitarteko haur eta gazteen artean kokatzen da, baita psikofarmakoek kontsumoan ere gaur egungo prebalentzia-egoera ezagutzeko, genero-ikuspegitik dauden desberdintasunak eta ezaugarri sozioekonomikoak ezagutzeko, kontsumoa mediku batek agintzen duen edo ez jakiteko, pandemiaren eragina ezagutzeko, kontsumoan zer faktorek eragiten duten eta zer neurritan egiten duten zehazteko. Hori guztia denboran zehar izan duen bilakaera eta beste eremu geografiko batzuekiko alderaketa aztertuz.

Prebalentzia ezagutzeari esker, gizartean izango duen eragina eta behar den erantzun-maila baloratzeko erraztasuna egongo da. Arazoaren dinamika ulertzeak egoera ebaluatzea errazten du, baina baita okerragotzeak zeintzuk diren ezagutzea ere. Gainera, denboran zehar kontsumitzen duen biztanleria ehunekoaren bilakaera aztertzeari esker prebentzioa funtzionatzen duen edo ez frogatzeko aukera egongo da.

3. Metodologia.

Azterlana bi fasetan garatu da, hurrengo helburuak lortzeko:

- Iturri eta estatistiken azterketa
- Azalpen-Eredu teoriko bat eraikitzea

3.1. Iturrien eta estatistiken azterketa.

Dauden iturrien analisia egiteko, Euskadiko 14-18 urte bitarteko biztanleriaren kontsumoaren gaur egungo prebalentziari buruzko datuak ematen dituzten txosten eta estatistikak aztertzen dira. Bertan, sexuaren, adinaren, egiten ari diren ikasketen aldagaiak txertatzen dira, eta , datuek aukera ematen dutenean, beste aldagai sozialago batzuk ere txertatu ahalko dira, esaterako ikasketak egiten ari diren zentroaren titulartasuna, familiaren egoera ekonomikoa, nazionalitatea, bizilekuaren habitata edo ikasleen zaletasunak.

Gainera, aldagai soziodemografiko horien bilakaeraren azterketa erakusten da eta biztanleria-segmentu berean, kontsumoa egonkor mantentzen den, gora egin duen edo behera egin duen adieraziko duena. Edozein kasutan ere, ikerketak egoera hori sorrarazten duten faktoreak aurkitu nahi ditu; izan ere, denboran zehar esparru bakar batetik baino haratago hedatzen da, eta gertatutako gertaeren sekuentziak ezartzeko aukera ematen du.

Ikerketarako datuak biltzeko iturri kualitatiboak eta kuantitatiboak erabili dira. Kualitatiboen artean, artxiboko dokumentuen eta gobernuko iturrien azterketa nabarmentzen da, baita gaia jorratzen duten argitalpen medikoak ere.

Psikofarmakoen kontsumoari buruzko informazio kuantitatiboa biltzeko tresna nagusiak honako hauek dira: substantzia horien kontsumoa eta normalizatuago dauden beste droga batzuk, adibidez tabakoa eta alkohola, eta kanabis, opiazeo, haluzinogeno, anfetaminiko edo beste substantzia sintetiko batzuetatik eratorritako beste droga batzuk txertatzen dituzten inkestak dira.

Hauek dira erabili diren **estatistika-iturri** nagusiak:

- *ESTUDES*, Adikzioen, Drogen eta Eskolaren Inkesta Osasun Ministerioak bi urtean behin egiten duen inkesta da. Gaur egungo informazioa eskaintzen du, ikastetxeetan bertan jasoa eta denboran zehar alderatua, 14 eta 18 urte bitarteko biztanleen kontsumoei buruzkoa, eta, gainera, sexuaren, adinaren, inkestatutako pertsonen egiten ari diren ikasketen eta ikasten ari diren zentroen titulartasunaren aldagaiekin aurkezten du estatistika.

Gainera, kontsumo-ereduei buruzko informazioa biltzen du substantzia motaren arabera, eta gazteen iritziak eta haien kontsumoen aurrean hautemandako arriskuei buruzko jarrerak estimatzen ditu. Aztertzen ari garen kasuan -psikofarmakoak-, kontsumoa medikuaren aginduz egiten den ala ez aztertzen dute estatistika horiek.

- *DROGAK ETA ESKOLA*, EAEko bigarren mailako irakaskuntzetan drogekin egiten den erabilerari buruzko inkesta. Deustuko Droga Mendekotasunen Institutuak egiten die 11 eta 23 urte bitarteko ikasleei, lau edo bost urtean behin ikastetxeetan.

- *ADINAK*, Alkoholari eta beste droga batzuei buruz Osasun Ministerioak bi urtean behin egiten duen inkesta Espainian. Bere azterketa-eremuak adin guztiak hartzen ditu, 15 urtetik aurrerako informazioa bilduz, eta lehenengo aldiz egiten diren kontsumoen adinari eta kontsumo-eperei buruzko erreferentziak alderatzeko balio diezaguke; azken 12 hilabeteak, 30 egun edo egunero, lehen aipatu ditugun estatistikak bezala.
- *ADIKZIOEI BURUZKO INKESTA EUSKADIN*. Euskal Autonomia Erkidegoan 15 eta 74 urte bitarteko biztanleen artean egindako aldizkako estatistika, drogen kontsumoari eta substantziarik gabeko beste adikzio batzuei buruzko egoeraren berri izateko, arriskuaren pertzepzioa eta herritarrek arazo horri buruz duten iritzia, arazo horiei aurre egiteko neurriak eta horiekin lotutako gizarte-faktoreak ezagutzeko. Ikerketa horretatik abiatuta, 2017an *psikofarmakoen kontsumoari buruzko monografikoa sortu zen*.
- EAEko OSASUNARI BURUZKO INKESTA (EAEOI) Euskadiko osasunari buruzko informazio-sistemaren funtsezko zatia da, EAEko osasun-politikei buruzko erabakiak hartzea haren emaitzen inguruan ezartzen da. EAEOI-k informazioa osasunaren egoerari eta bilakaerari buruzko, haren determinatzaileei buruz eta osasun-zerbitzuen erabilerari buruzko informazioa ematen du, komunitatearen ikuspegitik. Estatistika honek, nerbioetarako eta antsietaterako botiken kontsumoa biltzen du biztanleriari egindako inkestaren aurreko bi egunetan, adin-taldeen eta sexuaren arabera.
- *ESPAD* inkesta. Proiektuaren helburu orokorra, Europako 15 eta 16 urteko ikasleen artean substantzia psikoaktiboen erabilerari buruzko datu alderagarriak biltzea da. Estatistika honetan Espainiak 2019 urtez geroztik parte hartzen du. Euskadiko egoera Europarekin alderatzeko beharrezkoa den estatistika da.

Iturri estatistikoez gain, psikofarmakoen kontsumoari buruz **argitaratutako dokumentazioa** erabiltzen dugu kontsumoaren prebalentziari buruzko alderdiak ezagutzeko eta:

- GENERO-DESDERDINTASUNA. Ikerketa osoan irizpide horizontal moduan aztertzen den alderdi garrantzitsu bat genero-ikuspegia da. Intersekzionalitatea gertatzen den edo ez aztertzen dugu eta Euskadiko 14-18 urteko biztanleen artean substantzia jakin batzuen kontsumoari dagokionez generoa gizarte-desberdintasunaren arrazoia den ere aztertzen dugu. Azterketa hori bi esparruetan gauzatu da, zeharkakoa eta luzerakoa, emakumezkoen kontsumoaren bilakaera ikusi ahal izateko.
- COVID-19 PANDEMIAREN ERAGINA. COVID 19ren izurriteak eragin handia izan du pertsonen eguneroko bizitzan, eta aurrekaririk gabeko erronka izan da adikzioa duten pertsonen arreta ematen dieten osasun-zerbitzuentzat. Zenbait ikerketaren aurretiazko emaitzek, COVID-19ak eragindako epidemia kontrolatzeko ezarritako neurriek substantzia psikoaktiboak kontsumitzen dituzten pertsonengan eragina izan dutela iradokitzen dute. Orokorrean, legez kanpoko substantzia mota horien kontsumoa jaitsi egin da. Bestetik, gaur egungo ikerketa medikoen arabera, psikofarmakoen kontsumoak gora egin du pertsonen artean Covid-19ak eragindako pandemiaren garaian eta ondoren, medikuaren errezetarekin.

Gainera, birusaren hedapena gelditzeko asmoz, mugikortasuna kontrolatzeko eta murrizteko neurriak ezartzearen ondorioz eragin handia izan zuen gizartean, gaueko aisialdia ixtearen ondorioz kontsumo-ohiturak aldatu egin zirelako eta etxeko kontsumoa areagotu egin zelako.

Estatistika desberdinak jarri dira abian, Euskadi mailan, estatu mailan eta Europa mailan, COVID-19aren eragina eta adikzioen esparruan dituen ondorioak aztertzeko; kasu batzuetan, inpaktu handiena pairatu duten talde sozialen datuekin eta etorkizuneko beharrianak eta erronkak dituzten gizarte-taldeekin, igarotako denborak oraindik luzetarako azterketa bat egiteko aukerarik ematen ez duelako.

Eragin handiena duten gizarte-taldeen artean 14 eta 18 urte bitarteko biztanleak eta emakumeak daude.

Hona hemen erabilitako dokumentazio-iturri horietako batzuk:

- Jóvenes y consumo no médico de psicofármacos: Un análisis desde el enfoque de género. Atenea Fundazioa. 2020.
- Emakumeak eta Psikofarmakoak monografikoa. Osasun Saila. Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza. 2020.
- Consumo de hipnosedantes. Análisis histórico desde la perspectiva de género. Atenea.2018 Fundazioa. ➤ Diferencias en la percepción de consumo recreativo de drogas entre chicos y chicas jóvenes. Un análisis desde la perspectiva de género. Atenea Fundazioa. 2014.
- Hombres, Mujeres y Drogodependencias Explicación social de las diferencias de género en el consumo problemático de drogas. Atenea.2016 Fundazioak egindako ikerketa bat.
- Euskadiko adikzioei buruzko inkesta, Psikofarmako monografikoa eta beste substantzia dopatzaile batzuk. 2017.
- El género como determinante de la salud mental y su medicalización. Sespas txostena, 2020. Amaia Bacigalupe, Andrea Cabezas, Mikel Baza Bueno eta Unai Martín.
- COVID-19aren inpaktua eta ondorioak adikzioen eremuan, Euskadin. Laburpen exekutiboa: Adikzioen prebentzio arloko emaitzak. 2020.
- Encuesta europea sobre consumo de drogas en el contexto de la pandemia por Covid.19. (EMCDDA). 2020.
- COVID-19aren eragina eta horren ondorioak adikzioen esparruan Euskadin. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila. 2020.

3.2. Azalpen-eredu teorikoa

Azalpen-eredu teorikoa honako teknika hauek erabiliz egin da:

- ✓ **Maiztasun gurutzatuen azterketa.** Neska-mutilen ezaugarri soziologikoen eta bere kontsumo-tipologiaren arteko harremanak eta beraien arteko lotura-maila ezagutzeko.
- ✓ **Faktorizazioa.** Helburua, daukagun datu multzoa murriztea da, informazio gutxiagorekin, baina errepresentazio handiagoarekin. Helburua, laburbiltzea da, ulertzeko.
- ✓ **Arrisku-faktoreak.** Arrisku-faktoretzat, pertsonen ezaugarriak hartzen ditugu, ezaugarri pertsonalak, familiakoak, taldekoak edo sozialak, fenomeno bat gertatzeko probabilitatea handitzen dutenak.

Datuen analisirako lehen hurbilketa bat maiztasun gurutzatuen analisi klasikoarekin egiten da, eta horrek beste batzuen gainetik nabarmentzen diren ehunekoak ikusteko aukera ematen digu.

Errealitate bati eragiten dioten faktore desberdinen azterketa, estatistikatik ebazten da prozedura ugariaren bitartez. Faktore-analisia aldagai multzo baten informazioa laburbiltzen duen aldagai anitzeko estatistika-teknika bat da, aztertu beharreko arazoaren azalpen argiago bat emateko. Hori guztia, elkarrekin lotura estua duten behatutako edo ageriko aldagaiekin lortzen da. Horretarako, korrelazio- edo kobariantza-matrize bat erabiliko dugu, subjektuetan edo kuantifikatu daitezkeen beste objektu batzuetan neurtu diren datuetatik abiatuta sortu dena. Helburua, informazioa faktore izeneko aldagai gutxitara laburtzea da, fenomenoak modu errazenean eta modu erabilgarria azaltzeko, eta horrela lortutako laginek datuak aldagai berrietan sintetizatzeko aukera emango dute, eta aldagai horiek jatorrizko aldagaiak laburbilduko dituzte, informazio garrantzitsua galdu gabe.

Faktore-analisia aplikatzeko unean bi ikuspegi daude: esploratzekoa eta berrestekoa. Aldagaien arteko erlazioa ezagutzen ez bada, atera beharreko faktoreen kopuru edo datuak murrizteko metodoen bat ezagutzen ez bada, esplorazio-metodoa erabiliko da.

Aplikazioa sortzaren anizkoitzaren printzipiotik abiatuta garatuko da; printzipio horretan, oro har, efektuak ez dira kausa bakar baten ondorio, faktore anitzen gertakariaren ondorio baizik. Gizarteko arazoaren ikerketa egitean, kausak eta haien arteko harremana ezagutzea ezinbestekoa da, baita fenomeno jakin bat aurreikusten edo errazten duten ezaugarri pertsonalak edo ingurumenekoak ere.

Aipatutako neurketa-tresnen eta analisi-metodoen laguntzarekin, ikerketa honetan 14 eta 18 urte bitarteko nerabeen artean psikofarmakoen kontsumoaren prebalentziari buruzko faktoreen jokaera azalduko duen eredu bat sortuko da. Faktore soziodemografiko desberdinen eta jarreraren arteko esanahia aztertuko da, errezetadun eta/edo errezetarik gabeko kontsumoarekin zer lotura duten jakiteko.

Faktoreek kontsumoarekin duten garrantzia ezagutzeaz gain, ODD ratioa aplikatuko dugu, faktoreek kontsumoarekin duten garrantzia zein probabilitaterekin gertatuko litzatekeen jakiteko.

Aldagai anitzeko analisia egiteko, Barbwin 7.0 analisi estatistikoaren programa erabili da.

Lortutako datuetatik, Euskadiko egoera azaltzen duen azalpen-eredu teoriko bat erakusten da.

4. Ikerketaren emaitzak

4.1. Psikofarmakoen kontsumoari buruzkoa.

Psikofarmakoei eta dopatzeko substantziei buruz Eusko Jaurlaritzaren 2017ko Adikzioen Inkestako datuetan oinarrituta egindako Monografikoan egiten duten aurkezpena oso egokia da, azterlanaren xedea aurkezteko.

Substantzia jakin batzuekiko mendekotasunari buruz hitz egiterakoan, psikofarmakoak kontuan ez hartzea ohikoa izaten da. Hala ere, askotan edo etengabe erabili ondoren, substantzia horien kontsumoak mendekotasuna ere eragin dezake. Farmako horien artean nerbioak lasaitzeko (lasaigarriak), antsietatea murrizteko (antsiolitikoak), loa errazteko (hipnotikoak edo baregarriak) edo depresioaren sintomak tratatzeko (antidepresiboak) erabiltzen direnak daude. Azken urteotan substantzia horiekiko kezka soziala areagotu egin da, bai eta substantzia horien arriskugarritasunari buruz ohartarazten duten azterlanak ere.

Lasaigarriak, baregarri hipnotikoak eta antsiolitikoak nerbio-sistema zentralaren mailan jarduten duten sendagai multzo bat dira, eta pentsamenduan, pertzepzioan, afektuan, esna-aldi-egoeran eta jokaeran aldaketak eragiten dituzte. Normalean ahotik kontsumitzen dira, zenbait tamainakoak dira, formatu eta koloretako pilulen edo konprimatuen bidez, baina zain barnetik ere eman daitezke.

Psikofarmakoak, estresaren, tristuraren, gaixotasun fisiko arinen edo lo egiteko zailtasunaren sintomak dituzten pertsonen ematen zaizkie. Denbora luzez kontsumitzen badira mendekotasuna izateko probabilitatea handitzen da, bereziki alkoholaren, beste droga batzuen edo bestelako farmakoen kontsumo-maila handia duten pertsonen kasuan, bai eta nortasun-nahasmenduak dituzten pertsonen kasuan ere. Psikofarmakoekiko mendekotasunari "mendekotasun isila" ere deitzen zaio. Horrelako substantzia motak kontsumitzeak zenbait mendekotasun mota eragin ditzake. Alde batetik, mendekotasun fisikoa, dosi handiago bat kontsumitzea eragiten duena; bestetik, mendekotasun kognitiboa, substantzia lortzeko eta kontsumitzeko premia handiagoa sortzen duena; eta jokabidezko-mendekotasuna, kontsumitzaileen eta beren ingurukoaren jokaera eta jokabidea alda dezakeena.

Psikofarmakoek beste kontsumo-substantzia batzuetatik bereizten dituzten ezaugarri batzuk dituzte.

Lehenik eta behin, beste substantzia batzuk ez bezala – heroína edo kokaina, esaterako –, medikuntzako profesionalek agindu ohi dituzten farmakoak dira.

Bigarrenik, psikofarmakoak eskuratzeko bide nagusia medikuaren errezeta da, eta kasu gehienetan medikuntzako profesional batek ikuskatuta kontsumitzen da. Hala ere, preskripzio horrek autokontsumoa bideratzeaz gain legez kanpoko merkatuetan merkaturatzea ondorioztatzen du, eta, beraz, zaila da kuantifikatzea gehiegi edo kontrolik gabe kontsumitzen duten pertsonen kopurua, kontsumo horrek – besteak beste, nahasmenduak, gaindosiak edo heriotza – ekar ditzakeen ondorioekin.

Hirugarrenik, substantzia horiek kontsumitzen hasteko adina, batez beste, gainerako droga guztien kontsumoa baino beranduago gertatzen da, zehazki, 15-20 urte geroago. Psikofarmakoen kontsumitzaileak, batez beste, helduaroan hasten dira kontsumitzen.

Azkenik, substantzia horien kontsumoaren beste ezaugarri nagusietako bat -literaturan oso aipatua izan dena-, emakumeek gehiago kontsumitzen dutela da. Psikofarmakoen kontsumoaren prebalentzia – bizitzan behin edo azken urtean, azken hilabetean edo egunero – handiagoa da emakumezkoen artean gizonezkoen artean baino gure inguruko herrialde gehienetan. Eredu hori ez dator bat gainerako substantziekin; izan ere, gainerako substantzien kontsumoa orokorrean, handiagoa da gizonezkoen artean.

Medikuaren agindua duten edo agindua ez duten psikofarmakoen kontsumoari buruzko teoria edo azalpen-ereduak bilatzeko unean honako arazo hauek aurkitzen ditugu:

- ✓ Adikzioen mundua askotarikoa da, eta ezaugarri oso desberdinak ditu substantzia desberdinen artean, ez bakarrik efektuei dagokionez, baita substantzia haien legezkotasunari dagokionez horiek lortzeko prozesu osoan ere. Psikofarmakoen kontsumoa desitxuratuta geratzen da gainerako drogen artean; izan ere, gehiago kontsumitzen direlako (alkohola, tabakoa...), gizartean ezagunagoak direlako edo arriskugarritasunarekin eta marjinalitatearekin lotura handiagoa dutelako, hau da, arazo handiagoak sortzen dituztelako, xehetasun handiagoz aztertzen dira.
- ✓ Herritarrek orokorrean kontsumitzen dituzten psikofarmakoei buruzko ikerketak daude, baina oso ikerketa gutxi gazteen kontsumoari buruzkoak, eta are gutxiago nerabeen kontsumoari buruzkoak. Kontuan izan behar da substantzia horiek kontsumitzen hasteko adina nabarmen handiagoa dela beste substantzia batzuetan baino.
- ✓ Gainera zaila da kontsumo-ereduei, kontsumitzen duten edo kontsumitzen ez dutenez pertsonen arteko aldeei eta kontsumo hori eragiten duten arrazoiak eta faktoreei buruz azalpenak ematen saiatuko diren ikerketak aurkitzea zaila da. Kasu askotan, gaiari buruzko txostenek errealitatea deskribatzen dute, baina ez dute kontsumoak eragin ditzakeen azalpenetan edo arrazoietan sakontzen. Txosten horietan dauden ondorio asko gure azterlanaren adin-ratioa osatzen duten pertsonen aplikazioak dakizkieke, baina badirudi egokiena adin horretako pertsonen ezaugarrietara ahalik eta gehien hurbiltzen direnei arreta jartzea dela.

Guri iruditu zaizkigun azalpenezko txosten osatuenak eta gure txostenaren antzeko helburuak dituztenak honako hauek dira:

- Jóvenes y consumo no médico de psicofármacos: Un análisis desde el enfoque de género. Atenea Fundazioa.
- Emakumeak eta Psikofarmakoak monografikoa. Osasun Saila. Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza

- Consumo de hipnosedantes. Análisis histórico desde la perspectiva de género. Atenea Fundazioa.
- Hombres, Mujeres y Drogodependencias Explicación social de las diferencias de género en el consumo problemático de drogas. Atenea Fundazioak egindako ikerlan bat.
- Adikzioei buruzko inkesta Euskadin, psikofarmakoen monografikoa.

Horietako asko aipatu diren estatistiketan oinarrituta daude: ESTUDES, Eskola eta Drogak, ESPAD, Eusko Jaurlaritzako Adikzioen Inkesta..., bildutako datuen azpian dauden joerak eta elkarteak argitzen saiatuz.

Gure azterketaren helbururako interesgarrienak iruditzen zaizkigun **ondorio nagusienak** honako hauek dira:

Psikofarmakoen kontsumoaren prebalentziak azken urteotan gora egin du

Psikofarmakoen kontsumoaren prebalentziak gora egin du azken urteotan, bai biztanleria orokorrean, baita biztanleria gaztean ere, eta, zehazki, 14-18 urte bitarteko tartean.

Drogomedia Monografikoak erakundeak 2020an eskaintzen dituen Datuen arabera, Euskadik errezetarekin eta/edo errezetarik gabe hartutako psikofarmakoen kontsumo-tasak Espainiakoak baino zertxobait handiagoak dira. Bilakaerari dagokionez, bi lurraldeetan kontsumo esperimentalak gora egiteko joera duela ikusten da. Gorakada hori Euskadin 2012tik nabarmenagoa da, eta badirudi Espainian moteldu egin dela. Badirudi psikofarmakoen azkenaldiko kontsumoa eta egungo kontsumoaren prebalentziak igo egin direla Euskadin 2012tik, baina ez kontsumo esperimentalaren kasuan bezain nabarmen. Aitzitik, badirudi Espainian gelditu edo moteldu egin dela; izan ere, azken edizioetan behera egin du.

Errezeta bidezko kontsumoa handitzea, giza sufrimendua medikalizatzeko joeraren ondorioz eta gizarte-arazoaren ondorioz.

Gaur egungo gizartean, egoerei irtenbide bat emateko sendagilearengana joateko joera dago, eta garai batean egoera horiek sendagilerik gabe konpontzen ziren. Antsietate-arazoak, logurarik eza, estresa, bizitzako arazoek eragindako arazoak, edo egoera ekonomiko txarrek edo langabeziak eragindako arazoak, familia-gaixotasunak modu indibidualean edo, nolana ere, familiaren eta lagunen baitan jasan beharreko zerbait bezala ikusten ziren. Gaur egun, kasu askotan, osasun-sistemara jotzen da, eguneroko bizitzan eta sentitzen zaren moduan arazo horiek nola eragiten duten ondorioengatik. Irtenbide azkarra bilatzen da. Kasu askotan, pertsona horiek psikofarmakoekin medikalizatzen dira, eta, ondoren, ez da kontsumo horren jarraipenik egiten. Emakumeak etxean zaintzaile rola dutenak izatea egiten du neurri handiagoan egoera horietan egotea. Artikulu askotan osasun publikoan psikologiako profesionalen falta dagoela aipatzen da, eta horrek medikalizazioa bultzatzen du terapiarekin edo bestelako tratamenduekin konpon daitezkeen kasuetan. Eurostaten arabera, Espainian 11 psikiatra daude 100.000

biztanleko; Norvegian, Frantzia, Suedian edo Alemanian, aldiz, bikoitza baino gehiago eta Suitzan bost aldiz gehiago.

Farmazia-industrien eragina kontsumoaren igoeran

Asko azpimarratu da eta zalantzan jartzen psikofarmakoen kontsumoa handitzearen ondorioz farmazia-industriak lortzen duen etekinaren egitate objektiboa. Ez da gutxietsi behar korporazio handi horien boterea. Ivan de la Mata Ruiz eta Alberto Ortiz Lobo psikiatreek "Industria Farmacéutica y Psiquiatría" artikuluan (Rev. Asociación Española Neuropsiquiatría) honako ondorio hauek atera dituzte:

"Farmazia-industria irabazi handieneko jarduera ekonomikoetako bat bihurtu da azken hamarkadetan, eta jarduera horrek psikiatrian onura handiagoak izan ditu marketinaren garapen eta hobekuntzaren ondorioz, benetako aurrerapen zientifikoen mende egoteagatik baino.

Farmazia-konpainien merkataritza-interesek eragin handia dute gizarte-diskurtsoan; izan ere, kultura- eta gizarte-ondoezak alferrikako psikofarmakologizazioa eragiten laguntzen dute, farmaziako gastua etengabe handitzen dutelako eta osasun-sistema nazionalen bideragarritasuna mehatxatzen dutelako."

Prebalentzia handiagoa emakumezkoen artean gizonezkoen artean baino adin-talde guztietan

Psikofarmakoen kontsumoaren ezaugarri esanguratsu eta bereizgarrienetako bat zera da: orokorrean, emakumezko prebalentzia gizonezkoena baino handiago dela da. Desberdintasun hori adikzio hori azaltzeko funtsezko azalpen-ardatzetako bat da. Medikoezko psikofarmakoak errezetatu dietelako hartzen dituzten emakumezkoen kopurua handiagoa da medikuaren agindurik gabe hartzen dituzten emakumezkoena baino.

Emakumezkoen artean errezeta bidezko psikofarmakoen erabilera handiak ez dator bat irizpide mediko objektiboekin

Amaia Bacigalupek eta Unai Martinek (Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU) 2018ko Euskal Herriko Osasun Inkestatik abiatuta egindako ikerketaren emaitzek iradokitzen dutenez, emakumezkoen artean antsietate- eta depresio-prebalentzia altua eta errezeta bidezko psikofarmakoen erabilera, irizpide mediko objektiboekin ez datozela bat, eta, aitzitik, argi eta garbi genero-desberdintasunekin lotuta daudela.

Azterlan askok azaltzen dituzte genero-desberdintasun horiek, gizonezkoek eta emakumezkoek osasun fisiko eta mentaleko arazoei aurre egiteko duten modu desberdinaren ikuspegitik, gizartean duten esperientzia eta rola kontuan hartuta. Emakumeak, orokorrean, osasun-laguntza bilatzeko joera handiagoa du bere emozioak eta osasun mentala minduta daudenean edo egokiak ez direla uste duenean. Bizitzako tristura uneetan eta antsietate-uneetan kontsulta handiago horrek... kasu askotan medikuek,- normalean lehen mailako arretaren bidez-, genero-aurreiritzi hedatuen ondorioz beste era batera konpon daitezkeen sintomak medikazioarekin tratatzea eragiten du.

Menstruazio aurreko sintoma bezalako faktorea, edoskitzea eta mendekotasuna duten pertsonen zaintza bezalako beste faktore batzuk kontuan hartu behar dira errezeta bidezko psikofarmakoen kontsumo handiago horretan.

Genero-estereotipoen eta genero-aginduen eragina

Droga Mendekotasunen Deustuko Institutuak psikofarmakoekin tratamenduan dauden emakume gazteei buruzko azterlan kualitatibo bat prestatu du duela gutxi. Ikerketaren aurretiazko ondorioen arabera, elkarrizketatutako emakumeen bizitzan sarritan agertzen dira bikote-arazoak, akademikoki autoexijentzia handia eta familiako zaintza-kargak hartzea. Emakume horiek askotan jasotzen dute bost urte baino gehiago dirauen tratamendu bat, jarraipen irregularra duena, eta horrek kontsumoa kronikoago bihurtzen du.

Literatura zientifikoaren arabera, adostasun-maila handi batekin, emakumezkoek gizonezkoek baino nahasmendu emozional gehiago dituzte proportzionalki, eta gizonezkoek baino psikofarmako gehiago kontsumitzen dituzte. Bi fenomeno horiek azaltzeko aipatu den faktoreetako bat genero-estereotipoen eta genero-aginduen eragina da: enpatikoagotzat jotzen dira, eta beren ingurukoei laguntza ematera animatuta daude. Emakumeak zaurgarriagoak izan litezke nahasmendu emozionalekiko eta bizi-gertakari estresagarri edo traumatikoeikiko, eta zaurgarritasun hori beren mendeko estatus sozialaren arabera are larriagoa izango litzateke.

Emakumezkoek hipnosedatzaile gehiago kontsumitzek genero-agindu nagusien artikulazioen barruan azal daiteke, non kontsumo hori haiengandik espero denarekin ez baitator bat; gizonezkoek, berriz, legez kanpoko drogak kontsumitzeko joera handiagoa dute, arriskurako duten joera handiagoaren barruan.

Substantzia mota oso garrantzitsua da

Cantos-Vicent, R. eta Molina-Sánchez C. Atenea Fundaziotik egindako azterlanean, "Frente al espejo. Imagen social de las personas con consumo problemático de drogas desde la perspectiva de género" (2018), adikzioaren substantzia motaren garrantzia aztertzen da:

Substantziak adikzioen fenomenoari buruz gizarteak duen pertzepzioan garrantzia du; izan ere, alkohola, psikofarmakoak edo tabakoa bezalako legezko substantziak ez dira erraz jotzen gertakari problematikotzat jotzen, eta heroinak, kokainak, berriz, askoz ere osagai marjinalagoa dute. 80ko hamarkadako heroina-kontsumoarekin izandako arazoak eragin handia izan zuen imajinario sozialean drogen kontsumoan, eta kontsumo problematikoa duten pertsonen profil ugari dauden arren, profil zehatz horrekin lotzen jarraitzen da. Irudi soziala: gizon heldua, fisikoki hondatua, 35 eta 55 urte bitartekoa, sekulako bazterkeria-egoeran dagoena eta marjinaltasun-egoeran bizi dena.

Horrek zenbait gai dakartza berekin:

- Emakumezkoen kontsumoa ikusezina da.
- Gazteen artean kontsumoa normalizatu da, haien bizi-prozesuaren barruan.
- Kontsumoa agerikoa da, eta pertsonaren itxura fisikoaren bidez hautematen da.

- Kontsumo problematikoa soilik gizarte-bazterkeriako egoerekin dago lotuta.

Pertzepzio horrek eragin handia du aztertzen ari garen gaian, hau da, psikofarmakoen kontsumo ez-medikoa egiten duten gazteek. Gizarteak kontsumo-profil mota bat modu agerikoan identifikatzeak, besteen errealitateak ikusezin bihurtzen ditu, eta psikofarmakoen kontsumo problematikoa duen pertsona baten autopertzepzioan eragin dezake, mendekotasuna duen pertsona bezala identifikatzen ez delako. Aipatutako azterlanean, psikofarmako edo hipnosedatzaileen kontsumo problematikoa irudi sozialaren kasu zehatzean, hipnosedatzaileekiko mendekotasuna duten pertsonen irudi garbirik ez dagoela ikusi zen, bakarrik emakumeengatik kontsumitzen dela, eta kasu horretan, gizonezkoen zeregina substantzia horren hornitzailea izatea dela, bai legez edo legez kanpo ere (errezetatzen dituen medikuak). Azterlanak zehazten duenez, emakumeak orokorrean drogen kontsumo problematikoa ikusezin bihurtzeak eta substantzia hori nagusiki haiekin lotuta egoteak hipnosedatzaileen edo psikofarmakoen irudi sozial lausoa edo itxuragabea eragin dezake.

Nerabeek psikofarmakoak errezetarik gabe kontsumitzeak arrazoi desberdinak ditu sexuaren arabera.

ESTUDES inkestak errezetarik gabe orokorrean kontsumitzen duten pertsonen arrazoiak jasotzen ditu. Gizonezkoek nagusiki adierazitako arrazoiak honako hauekin lotzen dira: esperimentatzea edo probatzea, aisialdirako eta beste droga batzuen ondorioak gutxitzeko edo areagotzeko. Emakumezkoentzat, arrazoi nagusiak, bizitzeko arazoei aurre egin ahal izateko eta zenbait egoeraren ondorioz estres-uneak gainditzeko dira. Emakumezkoen eta gizonezkoen artean alde esanguratsurik ez dagoen arrazoi bakarra eguneroko ohiko egoerei aurre egitekoa da.

“Jóvenes y consumo no médico de psicofármacos: Un análisis desde el enfoque de género” izeneko Atenea fundazioaren txostena arabera, gizon gazteen kontsumoan gehien bilatzen den helburua beste droga batzuen ondorioaz gozatzea edo esperimentatzea da; nesketan, berriz, beren bizitzan sortzen zaizkien arazoak beren gain hartzea eta gainjartzearekin lotura handiagoa dute.

Gizonezkoen kasuan, beste droga batzuen ezagutzarekin hasten da gazteago kontsumitzen; emakumezkoen kasuan, berriz, beranduago hasten dira kontsumitzen, eta bizitzako erantzukizunen hasierarekin lotzen da. Botika, funtsean, familiaren eta lagunen bidez lortzen da, doan. Mutilek kontsumo puntualagoa egiten dute, aisialdiko uneekin lotuta dago, eta merkatu beltzean prezio bat ordainduta lortzen dute beste substantzia batzuk bezala.

Neskek psikofarmakoak espazio pribatuan errezetarik gabe kontsumitzen dituzte, mutilek jendaurrean

Erabilera-lekua eta lortzeko moduaren arteko bereizketa hori garrantzitsua da prebalentzia detektatu ahal izateko. Emakumezkoen kontsumoa espazio pribatuan egiten denez, ikusezin bihurtzen da, zaintzarekin eta medikamentu bat izango balitz bezala erabiltzen delako, eta zailagoa da negatiboa den zerbaitekin edo desegokia den zerbaitekin lotzea. Emakumezkoek errezeta bidezko psikofarmakoak gehiago erabiltzen dituztenez eta familien barruan zaintzaile gisa jokatzeko dutenez, aukera gehiago dituzte beren seme-alabei substantzia horiek emateko, baina batez ere gehiago alabei, sendagai modura eskatzen dituztelako (antibiotiko bat modu bidegabean nola ematen den edo familiako botikinean dagoen krema bat, oro har, medikuaren agindurik gabe).

Nerabeen artean informazio falta eta arriskuaren pertzepzio txikia dago

Azterlan horretan hautemandako beste ezaugarri batzuk dira psikofarmakoei buruzko informaziorik eza -zer sendagai mota diren talde horretakoak-, eta behar ez bezala kontsumitzeak dakarren arriskuaren pertzepzio txikiak dira.

Honela amaitzen da txostena:

“Arriskuarekiko pertzepzio baxua, ezagutza-maila txikia eta zenbait osasun-arazotarako psikofarmako bidezko tratamendu medikoen prebalentzia handiagoa, gazteen artean psikofarmakoak eskuratzeko erraztasuna eta behar ez bezala erabiltzearen gorakada azalpenaren oinarri dira. Gainera, horrek emakumezkoengan eta gizonezkoengan eragin desberdina du, hartzen ari diren arriskuei dagokienez.”

4.2. COVID-19ak eragindako pandemiaren eraginari buruz.

2020aren hasieratik, COVID-19aren pandemiak izugarritzko eragina izan du gure bizimoduan, eta, horren ondorioz, mundu osoko herrialdeek aurrekaririk gabeko neurriak aplikatu behar izan dituzte osasun publikoa babesteko.

Birusaren hedapena murrizteko asmoz, mugikortasuna kontrolatzeko eta murrizteko asmoz neurriak ezarri behar izan ziren, eta, horren ondorioz, neurri horiek eragin handia izan zuten gizartean eta lan-jardueran, baita drogen arloko egoeran eta horiek zaintzeko eta artatzeko gaitasunean. Bereziki eragina izan zuen sektoreetako bat gaueko aisialdia izan zen; izan ere, 2021eko udaberrira arte egon ziren indarrean irekiera- eta edukiera-murrizketak, eta, beraz, diskoteka eta taberna asko itxita egon ziren, edo ordutegi-muga handiak izan zituzten.

Pandemiak substantzia psikoaktiboen kontsumo orokorrean duen eraginari buruz egindako azterketak kontsumoei, artatutako pertsoneri edo botiken salmentari buruzko datuak bilatzen saiatu dira konfinamenduen hasieratik, jokaera horietan gertatzen diren aldaketak ikusten saiatzeko. Azterlan horiek zenbait iturri eta metodotatik jasotako datuetan oinarritzen dira:

- Online inkestak, kontsumitzaileentzakoak. Horren adibide bat *“Encuesta europea sobre consumo de drogas en el contexto de la pandemia por Covid.19 “* inkesta (EMCDDA). 2020ko uztaila.
- Konfinamenduan zehar kontsumitzeko beste modu batzuei buruzko inkestak. Estatu mailan, *“Encuesta de tabaco, otras formas de consumo y confinamiento”* topatzen dugu, Osasun Ministerioak egina, edo *“Encuesta WEB europea Alcohol y COVID-19”*, Dresdengo Unibertsitate Politeknikoa buru duena.
- Larrialdietara eta tratamenduetan onartuak izan direla jakinarazten duten zentroen datuak (SEIDA).
- Droga potentzial berriak hautemateko alerta goiztiarreko sistema (SEAT).
- Prebentzioko eta tratamenduko profesionalei egindako inkestak eta elkarrizketa sakonak. Datu horiek Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak erabiltzen ditu *“COVID-19aren eragina eta adikzioen alorrean Euskadin”* dituen ondorioak txostena egiteko (2020ko abendua).

- Identifikazioari eta joerei buruzko azterlan azkarrak, EBko kide diren bazkideen estatistika berrietatik jasotakoak, "Informe europeo de las drogas y las toxicomanías" (EMCDDA) kasuan. 2021.
- Hondakin-uren analisia.

Gainera, ohiko estatistikek, esaterako ESTUDES -nazio mailan bere azterlana Bigarren Hezkuntzako drogen erabileran zentratzen dena-, substantzia psikoaktiboen kontsumoari buruzko datuak biltzen jarraitu dute denbora horretan, eta desberdintasunak erakutsi dituzte substantzien kontsumo orokorrari dagokionez, eta bereziki psikofarmakoen kontsumoari dagokionez, gure aztergai den biztanleriari dagokionez, pandemiak iraun duen bitartean.

Tabakoa eta alkohola bezalako substantzien kasuan, COVID-19ak eragindako pandemiaren ondoriozko kontsumo horien jokaeretan izandako aldaketei buruzko txosten monografikoak aurkitzen baditugu ere, ez da gauza bera gertatzen psikofarmakoak diren beste substantzia batzuekin -horiek baitira gure aztergaia-, eta, batez ere, interesatzen zaigun adin-tartean, 14 eta 18 urte bitarteko pertsonak baitira. Biltzen ditugun teoriak orokorrean herritar guztien jokaerei buruzkoak dira, gazteei buruzko ohar zehatzekin.

Oro har, txosten guztiak honela definitzen dira: gertatzen denaren "pertzepzioak", argitaratzen diren uneko egoeraren deskriptiboak; izan ere, pandemia hasi zenetik ezin da inolako bilakaera-azterketarik egin igarotako denbora laburra delako eta pandemiaren hedapena geldiarazteko hartu ziren neurriengatik. Eta, orokorrean, hiru denbora-tarte desberdinetan kokatzen dira:

“Kontsultatu diren adituen arabera, gazteen artean droga-kontsumoan eragina izan du. Zenbait substantziaren kontsumo-prebalentzien detekzioan eta analisian lan egiten duten osasun-adituek eta baita kontsumitzen duten gazteekin esku hartzen ari diren elkarrizketatutako profesionalak adierazten dute konfinamendua baino lehen, konfinamenduan zehar eta konfinamendu ostean azterketa bat egiten has daitekeela”.

Gazteak eta psikofarmakoen kontsumo ez-medikoa.

Atenea Fundazioa, 2020ko abendua.

Konfinamenduak iraun zuen bitartean, eta substantzia psikoaktiboen multzoari, gaueko aisialdiko mugei eta itxierari eta ordutegi-murrizketei erreparatuz, substantzia horien erosketa eta kontsumoa krisiaren aldi hartan aldatu zela, kontsumo sozial eta publikoa izatetik kontsumoa batez ere etxeoagoa izatera igaro zelako. Teoria desberdinen arabera, substantzien noizbehinkako kontsumoa egiten zuten pertsonak, kasu batzuetan

kontsumitzeari utzi zioten, eta beste batzuetan kontsumoa murriztu zuten ezin zituztelako substantziak lortu. Alde horretatik, eragin positiboa izan zuen kontsumoan.

“Konfinamenduan zehar tabernak, ostalaritzako lokalak, terrazak, apustu-establezimenduak eta aurrez-aurreko jokoa eta abar mugatzea, debekatzea eta ixtea neurri positibotzat har daitezke adikzioen alorrerako, espazio publikoetako kontsumo soziala jaisten lagundu duten neurrian.”

COVID-19aren eragina eta adikzioen esparruan dituen ondorioak Euskadin
Laburpen exekutiboa: Adikzioen prebentzio-arloko emaitzak. 2020ko abendua

Hala ere, gune pribatuetan, krisiaren hasierako une haietan, substantzien **kontsumoak gora egin zuen**, adibidez **alkoholak**. Kontsumoaren igoera hori neurri berean gertatu da gizonezkoen eta emakumezkoen artean.

Jokabide-ereduetan jarraibideak mendekotasun-ereduetarantz aldatu egin direla nabarmendu behar da:

“Zehazki, biztanleria artean orokorrean kontsumo edo jokaera adiktibo bakartiak –arriskutsuagoa denak– gora egin du (% 52,9), COVID-19aren ondorioz bizitako egoerak eragindako estresak, larritasunak edo antsietateak eragindako kontsumoak edo mendekotasun-jokabideak (% 41,2).”

COVID-19aren eragina eta adikzioen esparruan dituen ondorioak Euskadin
Laburpen exekutiboa: Adikzioen prebentzio-arloko emaitzak. 2020ko abendua

Adikzio-jokaerak, antsietateak eta, orokorrean gazteekin etxe barruko kontsumoari dagokionez permisibitate handiagoa izateak etxeko adingabeen artean Interneten, sare sozialen eta bideo-jokoen erabilera areagotu du.

Baina, gainera, 18 eta 30 urte bitarteko gazteen artean, eta erabilera medikorik gabeko psikofarmakoen kontsumoari dagokionez, Atenea fundazioaren "Jóvenes y consumo no médico de psicofármacos" txostenean jasotzen den bezala,

“Ikusten ari gara konfinamendu garaian jendeak etxean zituen botika asko kontsumitu zituela, eta gazteek etxean zegoenarekin esperimintatu zutela, eta, jakina, benzodiazepinek aurkitu zituztela. Jende ugari asko sufritzen ari dela ikusten dut eta benzodiazepinen preskripzioa asko handitu dela, baina, jakina, preskripzioa dagoen guztietan jendeak oso ongi esaten du: "Hau badaukat, jada ez nago urduri" eta hau, azkenean, berdinei informazioa helarazteko modu bat da”.

Osasun publiko-arloan eta drogen erabileraren detekzioan aditua
Gazteak eta psikofarmakoen kontsumo ez-medikoa.
Atenea Fundazioa, 2020ko abendua.

Dirudenez, gazteak hasi dira erabiltzen antzeko ondorioak eragin diezazkieketen beste substantzia mota batzuk, egunero edo aisialdiko testuinguruekin lotutako unean uneko drogak hartzeko zailtasunak dituztelako. Badirudi hori ez dagoela lotuta bakarrik ohiko kontsumoa duten pertsonak ordeztearekin, baizik eta, baita ere, aisialdi eta esperimentazio moduak ordezkatzeko, beste substantzia mota batzuekin ere:

“Psikofarmakoekin ez ezik, antihistaminikoekin ere esperimentatzeko joera izan dute, eta legezkoak diren eta errezetarik gabe farmazian lor daitezkeen botikekin erronkak egin dituzte. Haluzinazioak eragiten dizkizuten gripearen aurkako botikekin erronkak Tik-Tok-en. Zaintza farmakologikoko zerbitzutik deitu zidaten sendagai jakin batzuen erosketa handitu zela adierazteko”.

Osasun publiko-arloan eta drogen erabileraren detekzioan aditua
Gazteak eta psikofarmakoen kontsumo ez-medikoa.
Atenea Fundazioa, 2020ko abendua.

Pertzepzio hori kontsumitzen duten edo kontsumoa gertatzeko arriskuan dauden adingabeekin esku hartzeko baliabideetan ere hauteman da.

Psikofarmakoen kontsumoari dagokionez, biztanleria osoari buruz aritu arren, antzeko ondorioak atera dira Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak argitaratu zuen azterlanean:

“Halaber, parte hartu duten profesionalen ustez, aldi horretan benzodiazepinen eta psikofarmakoen (antsiolitikoak) kontsumoa handiagoa izan da. Proposatutako azalpenen artean, honako hauek nabarmentzen dira: batetik, egoerak eragindako antsietatea eta estresa areagotzea. Bestetik, normalean kontsumitzen dituzten substantziak kalean erosteko edo kontsumitzeko eskuragarritasun txikiagoa (konfinamendua, kontrol sozial handiagoa, erosteko/eskuratze zailtasuna, etab.) eta, ondorioz, kontsumitutako substantzia mota aldatzea erabaki duten biztanleen kopurua handitu egin da. Azkenik, Lehen Mailako Arretako osasun-profesionalek psikofarmakoen preskripzioa nabarmen handitu dutela ikusi dute profesionalak.”

COVID-19aren eragina eta adikzioen esparruan dituen ondorioak Euskadin
Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila. 2020ko abendua

Ildo horretan, ESTUDES 2022 txostenak hipnosedatzaileen kontsumoari buruzko datuak biltzen ditu. Datu horien arabera, 2021ean droga guztien kontsumo prebalentzien beherakada orokorra ikusten da, bai legezkoak baita legez kanpokoak ere -hipnosedatzaileak izan ezik-, 14 eta 18 urte bitarteko biztanleen artean estatu mailan. Informazioa biltzeko unean, oraindik aisialdirako zenbait murrizketa ezarrita zegoen.

“Hipnosedatzaileak dira ikasleek proportzio handiagoan kontsumitzen dituzten substantziak alkohola, tabakoa eta kanabisaren ondoren. 2021ean, 14-18 urte bitarteko gazteen % 10,3k hipnosedatzaileak kontsumitu ditu (errezetarik gabe) bizitzan noizbait, % 7,2k azken urtean eta % 3,6k azken hilabeteetan. Emakumezkoen kontsumoa nagusiagoa da. Errezetarik gabeko hipnosedatzaileen kontsumoan goranzko joera txiki bat ikusten da 14-18 urte bitarteko gazteen artean.”

ESTUDES 2022 txostena

Errezetarik gabeko hipnosedatzaileak kontsumitzen dituzten pertsonen ezaugarriak azken 12 hilabeteetan
Kontsumoaren prebalentzia % 7,2
Sexua % 64,4 emakumezkoak dira
Kontsumitzen hasteko batez besteko adina 14,1 urte

Iturria: Txostena ESTUDES 2022.

Txostenak, halaber, COVIDaren ondorioz herrialdean bizi izan den pandemia egoerak drogen kontsumoarekin lotutako larrialdietan eragina izan duela adierazten du, eta kanabisa, kokaina eta hipnosedatzaileak direla oraindik ere larrialdi gehien sortzen dituzten substantziak.

2020an konfinamenduan zehar kontsumitzeko moduetan gertatu ziren aldaketa horiek nahiko berriak izan dira, eta beharrezkoa izango da etorkizunean, drogen kontsumoan eta, zehazki, psikofarmakoen kontsumoan pandemiak duen benetako eraginean. Hala ere, psikofarmakoak erraztasunez eskuratzeko ondorioak ikusi ahal izan dira; izan ere, arriskua ez hautemateaz gain, beste substantzia batzuk eskuratzeko zailtasun-egoera baten aurrean psikofarmakoen kontsumoa handitzea eragiten dute, sortzen duten mendekotasunak dakarren arriskuarekin.

4.3. Psikofarmakoen kontsumoari buruzko estatistikak Euskadin 14 eta 18 urte bitarteko pertsonen artean.

Euskadiko erakunde desberdinek substantzia psikoaktiboen kontsumoari buruzko estatistikak egiten dituzte. Estatistika guztietan errezetadun edo errezetarik gabeko hipnosedatzaileen kontsumoari buruzko datuen bat jasotzen da: Eusko Jaurlaritzako Adikzioen Saila, Euskadiko Osasun Saila, Deustuko Unibertsitateko Droga Mendekotasunen Behatokia, etab.

Azterlan horietako batzuk biztanleria orokorrean zentratzen dira, baina guztietan adinaren edo segmentuen arabeko datuak erakusten dira; beraz, hauek erreferentziatzat aipatzea interesgarria da gure berrikuspenerako. Gainera, kontsumoak haien arteko denbora-maiztasun desberdinetan jasotzen dituzte. Horrekin, eta denbora-tarte

desberdinetan egin direla kontuan hartuta, denboran izan duen bilakaerari buruzko ondorio batzuk biribiltzen saiatzeko informazioa erakusten dugu.

Txostena egin den egunean argitaratu diren daturik berrienak aipatuko ditugu.

4.3.1 Adikzioen Inkesta, Eusko Jaurlaritzan.

Euskadiko Adikzioen Inkesta, Euskal Autonomia Erkidegoan 15 eta 74 urte bitarteko biztanleriari egiten zaion aldizkako inkesta da, honako hauek ezagutzeko: drogen kontsumoari eta substantziarik gabeko beste adikzio batzuei buruzko egoeraren egoera, arriskuari buruzko pertzepzioa eta herritarrek arazo horri buruz duten iritzia, eta horiei aurre egiteko neurriak, bai eta lotutako gizarte-faktoreak ere.

Gure azterlanaren interesa 14-18 urte bitarteko biztanlerian oinarritzen da. 2017ko edizioan Adikzioen inkestak adin horretako 158 pertsonako lagina du, argitaratutako azkenak.

Psikofarmakoen kontsumoari buruzko galdera denbora-maiztasun desberdinen inguruan egiten da. Datu-basean, 11 pertsona aurkitzen ditugu, 7 gizonezko eta 4 emakumezko, errezeta bidezko lasaigarriak, baregarriak eta/edo lo-eragileak bizitzan noizbait kontsumitu dituztela. Kopuru hori elkarrizketatutako adin horretako pertsonen % 6,9koa da. Hurrengo taulan ikus dezakegunez, bizitzan noizbait kontsumoaren prebalentzia handiena 16 urtekoan aurkitzen dugu.

Aipatutako substantzien kontsumoari dagokionez, azken 12 hilabeteetan eta azken 30 egunetan, bost pertsona daude. 3 gizonezko eta 2 emakumezko dira. Berriz ere nagusiki 16 urteko pertsonak direla ikusten dugu. Zifra hori bizitzan noizbait kontsumitu duten pertsonen artean % 45,4koa da, eta % 3,1koa aztertutako laginaren adin horretako pertsonen artean.

Hurrengo taulan, aipatutako maiztasunak laburbiltzen dira kontsumoaren arabera, antidepressiboen kontsumoari buruzko inkestaren emaitzak gehituz. Inkesta horretan, pertsona bakar batek kontsumitzen ditu antidepressiboak, eta 12,6 urtekoa da lasaigarriak, baregarriak eta/edo lo-eragileak kontsumitzen hasteko batez besteko adina.

Aipatu beharra dago horrelako substantziak errezetarik gabe kontsumitzen dituen pertsona bakarra dagoela, 14 eta 18 urte bitarteko pertsonen lagin osoaren % 0,63.

	Bizitzan noizbait	Azken 12 hilabeteetan	Azken 30 egunetan	Kontsumitzen hasteko batez besteko adina
Errezetarekin				
Lasaigarriak, baregarriak eta/edo lo-eragileak	11(%6,96)	5 (%3,16)	5 (%3,16)	12,6
Antidepressiboak	1 (%0,63)	0	0	
Errezetarik gabe				
Lasaigarriak, baregarriak eta/edo lo-eragileak	1 (%0,63)	0	0	
Antidepressiboak	0	0	0	

Errezetarik gabe lasaigarriak, baregarriak eta/edo lo-eragileak hartzen dituen pertsona 17 urteko gizon bat da, eta 12 urterekin hasi zen kontsumitzen.

Errezetarekin antidepresiboak kontsumitzen dituen pertsonak lasaigarriak, baregarriak eta/edo lo-eragileak ere kontsumitzen ditu, 14 urterekin hasi zen eta lasaigarriak 15 urterekin. Emakumezkoa da eta 18 urte ditu.

Iturria: guk prestatuta, Euskadiko Adikzioen Inkestako datuetan oinarrituta. 2017.

4.3.2. EAEko Osasun Inkesta. EAEOI.

EAEko Osasun Inkesta (EAEOI) Euskadiko osasunaren informazio-sistemaren funtsezko zati bat da, eta haren emaitzen inguruan EAEko osasun-politikei buruzko erabakien harrera ezartzen da.

EAEOIk osasunaren egoerari eta bilakaerari buruzko informazioa ematen du, baita bere baldintzatzaileei eta osasun-zerbitzuen erabilerari buruzko informazioa ere komunitatearen ikuspegitik.

Estatistika honek nerbioetarako botiken kontsumoa eta antsietatea biltzen ditu, biztanleriarentzako inkestaren aurreko bi egunetan, adin-taldean eta sexuaren arabera.

Nerbioetarako eta antsietaterako sendagaien kontsumo-prebalentzia (%) kontsumoaren aurreko bi egunetan, sexuaren eta adinaren arabera. Euskadi. 2013-2018

	2013				2018			
	Nerbio, antsietaterako Errezetarekin eta errezetarik gabe		Nerbio, antsietaterako errezetarekin		Nerbio, antsietaterako errezetarekin eta errezetarik gabe		Nerbio, antsietaterako errezetarekin	
	Gizonezko	Emakumezko	Gizonezko	Emakumezko	Gizonezko	Emakumezko	Gizonezko	Emakumezko
Guztira	3,9	7	3,9	6,9	3,8	7,4	3,7	7,4
0-14	1,2	0	1,2	0	1,5	0,7	1,5	0,7
15-24	1,1	0,9	1,1	0,9	2,3	1,7	2,3	1,7
25-44	3,3	4,1	3,3	4	3	3,7	3	3,6
45-64	4,9	8,6	4,8	8,4	3,8	8,4	3,8	8,4
65-74	5,4	12,8	5,4	12,4	4,6	9,6	4,5	9,6
>=75	9,1	16,5	9	16,5	11	21,5	11	21,5

Guk prestatutako iturria, EAEko 2013ko eta 2018ko Osasun Inkestaren datuetan oinarrituta.

Guk arreta jarriko dugun adin-tartea 15 eta 24 urte bitartekoa izango da, txosten honetan aztertu duguna baino apur bat zabalagoa. Aurreko taulan ikus dezakegunez, mota horietako botiken kontsumoa gora egin du inkesta egin baino aurreko bi egunetan, 24 urte bitarteko gazte taldeetan eta 75 urtetik gorako taldeetan, 2018ko estatistikan 2013ko estatistikarekiko. Igoera hori errezetarekin eta errezetarik gabe kontsumitzean eta errezetarekin kontsumitzean gertatu da, baina bi modalitateetan zifrak antzekoak direla aipatu behar da.

Adin-talde horretako pertsonen kontsumoa batez besteko orokorretik nahiko azpitik dago. Gizonezkoen kasuan kontsumoa ehunekoan 1,2 puntu igo da 2018an 2013arekiko, eta 15 eta 24 urte bitarteko emakumezkoen artean 0,8 puntuko izan da.

4.3.3. Drogak eta Eskola. Deustuko Unibertsitatea.

Drogak eta Eskola, EAEn bigarren mailako irakaskuntzetan drogen erabilerari buruz egiten den inkesta bat da. Deustuko Unibertsitateko Droga Gaietako Institutuak 11 eta 23 urte bitarteko ikasleei egiten die ikastetxeetan, lau edo bost urtean behin. Euskaldun nerabeen droga-kontsumoa eta horri lotutako aldagai batzuk ezagutu nahi ditu. 2022ko edizioan, kontsumoaz gain, kontsumoa eragin dezaketen beste jokabide eta aldagai batzuk ere aztertu dira. Eta, gainera, COVID-19aren garaian eta ondoren osasun- eta aldarte-egoeraren pertzepzioari buruzko zenbait galdera egin dira.

Eragiketa honek, 2022ko edizioan, psikofarmakoaren kontsumoari buruzko informazioa ematen duten 14 eta 18 urte bitarteko pertsonen lagin bat du: 3.998 pertsonaz osatuta dago, eta horien % 52,0 mutilak dira. Lasaigarri, baregarri edo lo-eragileen kontsumoari buruzko informazioa jasotzen du, elkarrizketatutako pertsonen errezetadun eta errezetarik gabeko kontsumoa bereiztuz, sexuaren eta adinaren arabera, denbora-tarte desberdinetan.

Ondorengo taulek errezetadun eta errezetarik gabeko kontsumoak 2017tik izan duen bilakaera erakusten dute, azterlan beraren aurreko ediziotik, eta aurten gertatu dena.

Mediku-errezeta bidezko kontsumoari dagokionez, 2017an nerabeen % 85,9k ez zuen bizitzan inoiz horrelako substantziarik kontsumitu, gizonezkoen artean % 88,3k eta emakumezkoen artean % 83,1ek. Kontsumitzen zutenen artean, kontsumo-prebalentzia handiagoa emakumezkoen artean dago kontsumo txikieneko maiztasunetan. Hala ere, eguneroko kontsumo-prebalentzia ikusten denean, prebalentzia bi sexu moten artean berdindu egiten da.


2022an inoiz kontsumitu ez dutenen prebalentzia orokorra 2017an (% 85,2) baino hamarren batzuk baxuagoa da. Elkarrizketatutako pertsonen generoaren ikuspegitik aztertuz gero, inoiz kontsumitu ez duten emakumezkoen kopurua ehunekoan 6 puntu baxuagoa da (% 82,2) gizonezkoena baino (% 88,0).

Nerabeen adinaren arabera, 2017an, bizitzan inoiz kontsumitu ez dutenen kopururik handiena 14 eta 15 urteko gazteen artean dago, eta ehuneko hori adinak gora egin ahala murriztu egiten da. Kontsumitzen zutenen artean, kontsumo-prebalentziaren ehuneko maiztasunaren arabera aldatu egiten zen, baina baliorik handienak 18 urteko pertsonen artean daudela esan dezakegu.

2022an, joera bera zegoen. Kontsumoa adinaren arabera, handitu egiten da urteak gora doazen neurrian. Adin guztietako kontsumo-maiztasun guztietan gaur egun 2017an baino prebalentzia handiagoa dela ikusten da. Eguneroko kontsumoan, gehikuntzarik handienak 15 eta 16 urteko gazteen artean ikusten dira, eta horien artean kontsumo-gehikuntza ehunekotan puntu 1ekoa da. Errezetarekin kontsumitzeko prebalentzia handiena 18 urtekoa da orain ere.

Gainera, 18 urteko adinari dagokio igoerarik handiena, 2017. urtearekin alderatzen badugu.

Errezeta bidezko kontsumo-prebalentziaren bilakaera 2017-2022



Iturria, guk prestatuta, DyE IX eta X. Droga menpekotasunen Deustuko Institutua datu-basean oinarrituta. 2017 eta 2022.

Medikuaren errezetarik gabeko lasaigarri, baregarri edo lo-eragileen kontsumoari dagokionez, 2017an eta hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, elkarrizketatutako pertsonen % 93,6k adierazi zuen inoiz ez zuela kontsumitu, eta ehuneko hori % 94,7ra igotzen zen mutilen artean nesken gaineratik (% 92,1).


2022an, inoiz kontsumitu ez duten 14-18 urte bitarteko pertsonen ehuneko orokorra % 91,6ra jaitsi da. Sexuaren arabera, 2017arekin alderatuz gero egoera aldatu egin da, eta gaur egun mutilak dira, % 93,5, inoiz kontsumitu ez dutela gehien ziurtatzen dutenak, nesken % 89,95en aldean.

Errezetarik gabe kontsumitzen duten nerabeen artean, bai 2017an baita 2022an, prebalentzia handiagoa da nesken artean kontsumo-maiztasun guztietan, baina, errezetadunekin gertatzen den bezala, zifrak antzekoak dira bi sexu moten artean asteroko eta eguneroko kontsumoan.

Adinei dagokionez, berriz ere gehien kontsumitzen dutenak 18 urtetik gorako pertsonak direla ikusten dugu denbora-maiztasun guztietan.

Errezeta bidezko prebalentziarekin ikusi den bezala, 18 urteko kontsumitzaileetan da kontsumoa gehien igo dena 2017arekin alderatuta.

Euskadiko 14 eta 18 urte bitarteko gazteen errezetarik gabeko kontsumo-prebalentziaren bilakaera (2017-2022)



Iturria, guk prestatuta, DyE IX eta X. Droga menpekotasunen Deustuko Institutua datu-basean oinarrituta. 2017 eta 2022.

Estatistika hori, beste estatistika batzuk ez bezala, psikofarmakoen kontsumoari buruzko kontsulta egitean, alde batetik errezetarekin eta bestetik errezetarik gabe bereizita egiten da. Interesgarria da; izan ere, beste estatistika batzuekin ezin dugu banakatzeko-maila hori lortu, eta, gainera, aukera ematen du modu batean kontsumitzen dutenetatik zeintzuk kontsumitzen duten beste erara zehazteko.

Bi kontsumitzaile mota definitzen ditugu:

- Kontsumitzaileak, azken 30 egunetan eta azken astean noizbait kontsumitu dutenak, eta/edo ia egunero kontsumitu dutenak.
- Ez-kontsumitzaileak, inoiz kontsumitu ez dutenak edo azken urtean kontsumitu dutenak, baina ez azken hilabeteetan.

Errezetarekin, errezetarik gabe eta biak sexuaren arabera kontsumo-prebalentziaren bilakaera.

	2017			2022		
	Orokorra	Gizonezko	Emakumezko	Orokorra	Gizonezko	Emakumezko
Ez du kontsumitzen	96,0	96,6	95,2	93,8	96,3	91,2
Errezetarekin bakarrik kontsumitzen du	2,8	2,5	3,3	4,2	2,3	6,1
Errezetarik gabe bakarrik kontsumitzen du	0,6	0,4	0,9	1,1	0,7	1,4
Errezetarekin eta Errezetarik gabe kontsumitzen du	0,6	0,5	0,7	1	0,7	1,3

Iturria, guk prestatuta, DyE IX. eta X Deustuko Droga menpekotasun Institutuko datu-baseetan oinarrituta. 2017 eta 2022.

Aurreko taulan ikus dezakegunez, bai 2017an bai 2022an emakumezkoen kontsumoa gizonezkoena baino handiagoa da kontsumo mota guztietan. Medikua aginduz bakarrik kontsumitzen duten pertsonen kontsumoa, bi aldietan errezetarik gabe edo bi motak konbinatuz egiten dutenena baino askoz handiagoa da. Bestalde, aldi horretan mutilek antzeko kontsumoak izan dituzten bitartean, emakumezkoen mailak gora egin dute, ia bikoiztu arte.

Lortutako datuen arabera, errezetarik gabeko kontsumoa errezeta bidezko kontsumoari alderantziz baino lotuago dagoela esan daiteke:

- errezetarik gabe kontsumitzen duten pertsonen % 48,7k errezetarekin ere kontsumitzen dute,
- errezetarekin kontsumitzen duten pertsonen % 19,4k errezetarik gabe ere kontsumitzen dute.

Sexuen arabera ere, gertaera hau mutilen artean nesken artean baino eragin handiagoa du:

- errezetarik gabe kontsumitzen duten mutilen % 51,7k errezetarekin ere kontsumitzen dute,
- errezetarekin kontsumitzen duten mutilen % 23,8k errezetarik gabe ere kontsumitzen dute.
- errezetarik gabe kontsumitzen duten nesken % 48,1ek errezetarekin ere kontsumitzen dute.
- errezetarekin kontsumitzen duten nesken % 17,7k errezetarik gabe ere kontsumitzen dute.

Joera hori 2017an ere izan zen.

Pertsonen adinaren arabera emandako bilakaerari dagokionez, 14 eta 18 urte bitartekoen artean, adinarekin gora egiten duela ikusten dugu, bai errezetarekin kontsumitzeko, baita errezetarik gabe kontsumitzeko.

Errezetarekin, errezetarik gabe eta biak adinaren araberako kontsumoaren prebalentziaren bilakaera.

	2017						2022					
	Orokorra	14	15	16	17	18	Orokorra	14	15	16	17	18
Ez du kontsumitzen	96	97,8	97,2	95,6	95,3	91,6	93,8	95,5	94,4	92,7	93,3	91,4
Errezetarekin bakarrik kontsumitzen du	2,8	1,9	2,1	3,3	3,1	4,9	4,2	2,8	4,2	5,2	4,1	5,3
Errezetarik gabe bakarrik kontsumitzen du	0,6	0,2	0,2	0,4	1	1,9	1,1	0,7	1	1,4	1	1,5
Errezetarekin eta errezetarik gabe kontsumitzen du	0,6	0,1	0,5	0,7	0,6	1,6	1	1	0,5	0,7	1,6	1,9

Iturria, guk prestatuta, DyE IX eta X. Deustuko Droga menpekotasunen Institutua datu-basean oinarrituta. 2017 eta 2022.

Bi modutan kontsumitzen duten pertsonen dagokienez, 2017an kontsumoaren prebalentzia errezetarik gabekoaren antzekoa zen. 2022an, ordea, bi modu horietan kontsumitzen duten pertsonen ehunekoa handiagoa da 14, 17 eta 18 urte dituzten pertsonen artean baino errezetarik gabe kontsumitzen dutenena.

Orokorrean, pertsonen genero eta adinaren arabera aztertzen badugu, beti berdina mantentzen da errezeta bidezko kontsumoak duela prebalentzia handiena.



Euskadiko estatistiken berrikuspenaren **ondorio** nagusiak.

❖ **Eusko Jaurlaritzako Adikzioen Inkesta. 2017.**

- Errezeta bidezko lasaigarri, baregarri eta/edo lo-eragileen kontsumo-prebalentzia, 14 eta 18 urte bitarteko pertsonen artean, % 6,9koa da bizitzan noizbait kontsumitu dutenen artean.
- Azken 30 egunetan kontsumitu duten pertsonen artean, % 3,16koa da.
- % 60 gizonezkoak dira.
- Gehien kontsumitzen dutenen adina 16 urtekoa da.

❖ **ESCAV. 2013 eta 2018.**

- 2018an psikofarmakoen kontsumo orokorrak gora egin du 15-24 urte bitarteko adin-taldean, 2013arekin alderatuta. Bi sexu motetan, eta errezetarekin eta errezetarik gabe kontsumitzeko.
- Bi kontsumo motetan, eta aztertutako urteetan, kontsumoaren prebalentzia mutilen artean handiagoa da nesken artean baino.

❖ **Drogak eta Eskola. 2017 eta 2022.**

- Lasaigarri, baregarri eta/edo lo eragileen kontsumoa errezetarekin 2022an, oro har, 14 eta 18 urte bitarteko pertsonen artean % 14,8ko prebalentzia du, 2017an baino hamarren gutxi batzuk gorago.
- Mutilen artean, errezeta bidezko kontsumoaren prebalentzia duela 5 urte zegoen mailetan mantentzen da; nesken artean, ordea, igo egin da eta % 17,8ra iritsi da.
- Substantzia horien kontsumoa errezetarik gabe % 6,4koa zen 2017an, eta gaur egun % 8,4ra iristen da orokorrean, eta % 10,5era iristen da neskez ari bagara.
- Kontsumo-prebalentzia handienaren adina, 2017an zein 2022an, 18 urtekoa izan da.

4.4. Euskadiko 14 eta 18 urte bitarteko pertsonen arteko kontsumo prebalentziaren alderaketa beste eremu geografiko batzuekin, eta bilakaera.

Txostena egiteko unean gaiari buruz argitaratutako estatistikak aztertuta ikus dezakegu Euskadi non kokatzen den beste eremu geografiko batzuekin alderatuta, psikofarmakoen kontsumo-prebalentziari dagokionez.

Estatistika guztiek ez dituzte gure analisisan erabiltzen ditugun adin-segmentazioko parametro berberak erabiltzen, eta kontsumo-maiztasunak ez dira guztietan berdinak, baina multzo osoak substantzia horien kontsumoaren errealitate eta bilakaeraren berri ematen digu zenbait eremu geografikotan.

4.4.1. Beste biztanleria batzuekiko alderaketa.

4.4.1.1. Europarekiko alderaketa. ESPAD.

Europa mailan, ESPAD estatistikan ikusten dugu ezen Europako 40 herrialde baino gehiagoko ikerketa-taldeen arteko lankidetzak dagoela eta munduan nerabeek substantzia psikoaktiboak erabiltzeari buruzko nazioarteko ikerketa-proiektu handiena dela. Proiektuaren helburu orokorra Europako 15 eta 16 urteko ikasleen artean substantzia psikoaktiboen erabilerari buruzko datu alderagarriak biltzea da.

2019an, ESPAD inkesta egin da, eta, bertan, Espainiak lehen aldiz hartu du parte herrialde kide gisa; hala ere, 1995etik, Espainiak ESTUDES inkestatik eratorritako datu alderagarriak eman ditu.

Errezetarik gabeko sendagaien erabilerari dagokionez, Europa mailan orokorrean, honako ondorio hauek atera ditugu, interesatzen zaizkigun sendagaiei dagokionez:

“Oraindik ere kezkarria da nerabeen errezetadun sendagaien erabilera ez-medikoa. Esate baterako, inkestatuen % 6,6k beren bizitzan zehar lasaigarriak edo baregarriak erabili zituztela adierazi zuten, eta % 4k analgesikoak erabili zituztela». Batez beste, ikasleen % 3,4k beren bizitzan zehar substantzia psikotropiko berriak (NSP) kontsumitu zituztela adierazi zuten (beherakada txiki bat 2015ean, % 4arekin alderatuta), baina oraindik anfetaminak, estasia, kokaina edo LSDa baino kontsumo-maila altuagoak dituzte banaka kontsumituta. NSP kontsumitzen duten pertsona gehienak substantzien polikontsumitzaileak dira (hau da, alkohola, kanabisa eta estimulatzaileak ere kontsumitzen dituzte). NSP etengabe agertzeak eta NSP erabiltzen dutenen artean substantzien polikontsumoa egitea ere zaintza estu bat egin behar dela azpimarratzen du.”

ESPAD 2019 buruzko komunikatua

Espainiaren kasuan, 2019an errezetarik gabeko lasaigarri eta baregarrien kontsumo-prebalentzia, 15 eta 16 urte bitarteko biztanleen artean % 4,0koa zen orokorrean, adin horretako nesken artean handiagoa izanik eta nesken prebalentzia % 4,4ra iritsiz.

Ehuneko hori neurrizkoa da Europako beste herrialde batzuetakoarekin alderatzen badugu, % 20 eta % 21 bitarteko maximoekin, hurrengo taulan gorriz markatuta daudenak, baina % 1,7ko minimoaren gaineratik dago, berdez markatuta dagoena.

Errezetarik gabeko lasaigarri/baregarrien kontsumo-prebalentzia Europako 15 eta 16 urte bitarteko biztanleen artean (%). 2019.

Lurraldea	Lasaigarriak eta baregarriak	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Austria	5.6	5.3	5.9
Bulgaria	2.0	2.2	1.7
Kroazia	2.3	1.4	3.2
Zipre	6.6	7.3	6.1
Txekia	6.6	5.2	7.9
Danimarka	4.7	4.1	5.2
Estonia	15	12	18
Faroer	2.7	2.8	2.7
Finland	7.1	5.9	8.4
France	6.4	5.9	6.9
Georgia	3.1	3.2	3.1
Alemania	7.7	4.9	10
Grezia	3.5	4.0	3.1
Hungaria	7.6	6.0	9.3
Islandia	6.8	6.2	7.3
Irlanda	2.6	2.9	2.4
Italia	4.3	3.0	5.6
Kosovo	4.5	4.2	4.8
Letonia	21	12	29
Lituania	20	11	29
Malta	3.1	2.5	3.8
Monako	5.9	6.3	5.5
Montenegro	11	8.5	13
Herbehereak	8.3	7.2	9.4
Ipar Mazedonia	4.2	2.5	5.9
Norvegia	5.8	5.7	5.9
Polonia	15	9.2	20
Portugal	6.0	4.4	7.4
Errumania	1.7	1.6	1.8
Serbia	5.8	3.6	7.9
Eslovakia	10	6.5	13
Eslovenia	3.8	2.8	4.8
Espania	4.0	3.5	4.4

Suedia	6.4	5.3	7.5
Ukraina	1.7	1.2	2.2
Bataz bestekoa	6.6	5.1	8.0

Iturria: ESPAD Report 2019 Results from the European School Survey Project on Alcohol and Other Drugs

Hurrengo taulak, estatistika egiten den unetik errezetarik gabeko substantzia mota horien kontsumoak izan duen bilakaera erakusten du. Ez ditu Espainiako nerabeak barne hartzen, Espainia 2019ra arte ez delako estatistikan sartzen.

Errezetarik gabeko lasaigarri/baregarrien kontsumo-prebalentziaren bilakaera (%) Europako 30 herrialdetan.

Urtea	1995	1999	2003	2007	2011	2015	2019
Prebalentzia	7.4	7.3	6.1	6.7	6.9	6.3	7.0

Iturria: ESPAD Report 2019 Results from the European School Survey Project on Alcohol and Other Drugs Bilakaera honetan hurrengo 30 herrialdeetako datuak hartu dira kontuan (horien artean ez dago Espainia denboraldi osorako daturik ez duelako): Austria, Bulgaria, Kroazia, Zipre, Txekia, Danimarka, Estonia, Faroe Uharteak, Finlandia, Frantzia, Alemania (Baviera), Grezia, Hungaria, Islandia, Irlanda, Italia, Letonia, Lituania, Malta, Monako, Montenegro, Herbehereak, Norvegia, Polonia, Portugal, Errumania, Eslovakia, Eslovenia, Suedia eta Ukraina

Medikuaren errezetarik gabeko lasaigarri edo baregarrien prebalentzia-tasak beheranzko joera erakusten du bizitzan zehar noizbait kontsumitzeari dagokionez, eta gorabehera txikiak izan dira 1995 eta 2007 urte bitartean. Bi sexu moten joerak antzekoak dira, lasaigarriak edo baregarriak substantzia psikoaktibo bakarrak izanik, eta horien prebalentzia-tasa orokorra handiagoa da nesken artean mutilen artean baino.

ESPAD 2109 txostenaren arabera, ESPADen parte hartzen duten herrialde gehienetan medikuaren agindurik gabeko lasaigarrien kontsumoa egonkor mantendu da urteetan zehar.

Txosten horretatik zenbait ondorio atera dira, eta horien artean honako hauek daude; drogen preskripzioaren erabilera ez-medikoak -lasaigarri edo baregarri gisa- berehala lortu duela arrakasta nerabeen artean; izan ere, sendagai horiek dira drogatzeke gaizki erabiltzen den bigarren substantzia, kanabisaren ondoren, tabakoa eta alkohola alde batera utzita; analgesikoak haren atzetik daude.

Aldi berean, ikerketak honako hau iradokitzen du.

“...nerabeek substantzia kontrolatuak bila ditzakete intoxikatzeke, substantzia horiek legez kanpoko drogak baino seguruagoak direla uste dutelako.”

(McCabe et al., 2009; SAMHSA, 2017).

ESPADEk 2019an jasotzen duen egoera alderatzen saiatzen gara, Euskadirentzat ditugun denboran hurbilen dauden datuekin. Hurbiltzea errazten digun estatistika, bai denboran, bai adin-segmentuan, ESTUDES da. Hurrengo taulan, 2018an eta 2020an psikofarmakoak errezetarik gabe noizbait kontsumitu dituzten 15 eta 16 urteko pertsonen erantzunak agertzen dira.

Euskadin 15 eta 16 urte bitarteko nerabeen artean errezetarik gabe psikofarmakoak bizitzan noizbait kontsumitzearen prebalentzia. %. Konparatzen du 2018 eta 2020 ESPAD 2019rekin.

	2018 EUSKADI		2020 EUSKADI		Batez bestekoa ESPAD 2019	
	Gizonezkoa	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Emakumezkoa
15 eta 16 urte bitarteko nerabeen kontsumoaren batez besteko prebalentzia	7,9	5,2	6,4	5,2	5,1	8

Iturria: Guk prestatuta, ESTUDES datuetan oinarrituta Euskadirako 2018 eta 2020

Zifrek erakusten dutenez, 2018an, bizitzan noizbait psikofarmakoak errezetarik gabe kontsumitu zituzten Euskadiko 15 eta 16 urteko nerabeen ehunekoa, mutilen kasuan, Europako 2019ko batez bestekoa baino handiagoa zen. Nesken kasuan, prebalentzia ehunekotan ia hiru puntu txikiagoa zen.

Euskadin 2020an bildutako datuek erakusten dutenez, 15 eta 16 urteko nesken kontsumoaren batez bestekoak bere horretan jarraitzen zuen, eta mutilen kontsumoaren prebalentziak, berriz, behera egin zuen 2018ko estatistikarekin alderatuta. Europako batez besteko kontsumoari dagokionez, neskak azpitik mantentzen dira eta Euskadiko mutilek gainera jarraitzen dute.



ESPADEkin alderatzearen ondorio nagusiak.

- ❖ Errezetarik gabeko kontsumoaren prebalentzia 15 eta 16 urte bitarteko pertsonentzat Espainian baxuagoa da Europako adin horretako batez bestekoa baino (% 4,0 eta % 6,6, hurrenez hurren).
- ❖ Emakumezkoen eta gizonezkoen kontsumoaren arteko aldea handiagoa da Europako batez bestekoan Estatukoan baino.
- ❖ Euskadiren eta Europaren arteko alderaketak gizonezkoen kontsumo-prebalentzia Europako batez bestekoa baino handiagoa dela erakusten du, bai 2018an, bai 2020an. Euskadiko emakumezkoen

kontsumoa, batez beste, Europako zifra baino baxuagoa da, baita gizonezkoen kontsumo-zifra baino baxuagoa ere.

4.4.1.2. Espainiarako Osasunari buruzko Europako Inkesta.

Espainiarako Osasunari buruzko Europako Inkesta (OEI) bost urtean behin egiten den ikerketa bat da -COVID-19ak eragindako pandemiaren aldiaren izan ezik-, eta familiei zuzenduta dago. Inkesta horretan, Espainiako 15 urte eta gehiagoko biztanleei buruzko osasun-informazioa jasotzen da, Europako galdetegi komun baten bidez. Informazio horri esker, osasun-arloko jarduerak planifikatu eta ebaluatu daitezke, bai Europakoak, bai Estatuak.

INEk estatu mailan egiten duen estatistika honek, besteak beste, inkesta egin aurreko bi asteetan pertsonen kontsumitu dituzten sendagai motei buruzko informazioa jasotzen du.

Adin txikieneko tartean 15-24 urte bitarteko pertsonen kontsumoak biltzen ditu, adin-talde hori aztertzen ari garena baino zabalagoa delako, baina baliagarria da, gure aztergai den biztanleria talde horretan sartuta dagoelako, eta gure ikerketari buruzko argibideak eman ditzakeelako.

Hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, psikofarmakoen azken bi asteetako kontsumoari buruzko datuak bildu ditugu, bi denbora-tarteetan, 2014koa eta 2020koa.

Psikofarmakoen kontsumoaren bilakaera 15 urte eta gehiagoko biztanleriaren artean azken bi asteetan, % adin-tartean eta sexuaren arabera. 2014-2020.

	2014		2020	
	Lasaigarriak, baregarriak, lo egiteko pilulak	Antidepressiboak, estimulatuzaileak	Lasaigarriak, baregarriak, lo egiteko pilulak	Antidepressiboak, estimulatuzaileak
Bi sexuak				
Guztira	18,8	8,3	10,8	4,5
15-24 urte bitartean	4,1	1,0	1,5	0,7
25-44 urte bitartean	11,7	5,7	5,1	2,3
45-64 urte bitartean	19,9	10,2	11,5	5,6
65 urtekoak edo gehiago	28,8	10,8	22,7	7,8
Gizonezko				
Guztira	13,1	5,2	7,3	2,6
15-24 urte bitartean	6,2	0,7	1,8	0,7
25-44 urte bitartean	10,1	4,8	4,4	1,7
45-64 urte bitartean	12,7	6,0	8,1	3,4
65 urtekoak edo gehiago	18,6	5,9	13,9	3,5
Emakumezko				
Guztira	23,2	10,7	14,1	6,3
15-24 urte bitartean	2,8	1,2	1,3	0,6
25-44 urte bitartean	12,9	6,3	5,7	3,0
45-64 urte bitartean	26,1	13,8	14,9	7,7

65 urtekoak edo gehiago	36,2	14,4	29,6	11,1
-------------------------	------	------	------	------

Iturria: Guk prestatuta, 2014ko eta 2020ko Espainiako Osasunari buruzko Europako Inkestan oinarrituta

Datuetan ikus daitekeenez, estatistika horrek erakusten du murriztu egin dela estatu mailan azken sei urteotan substantzia mota horrek izan duen kontsumoa, bai orokorrean aztertzen badugu, baita kontsumitzaileen sexuaren arabera ere.

15-24 urte bitarteko adin-taldeari erreparatzen badiogu, 2014an kontsumoaren prebalentzia % 6,2koa zen gizonezkoen artean, emakumezkoen ehunekoaren gainetik, % 2,8koa baitzen. Ehuneko horiek 2020an behera egin zuten bi sexu motetan, eta ia berdinduta geratu ziren. Ikusten dugunez, adin-talde hori ez da kontsumoa handiena duena aztertutako biztanleria osoaren artean, aztertutako urte horietan.

Autonomia-erkidegokako kontsumoari dagokionez, estatistika beraren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoaren mota horretako sendagaien erabilera batez besteko orokorrarekin aldera dezakegu.

Azken bi asteotan errezetadun hipnosedatzaileak kontsumitu dituzten 15 urte eta gehiagoko biztanleen bilakaera, sexu eta autonomia-erkidegoen arabera. %. 2014-2020

	2014				2020			
	Lasaigarriak, baregarriak, lo egiteko pilulak		Antidepresiboak, estimulatzaileak		Lasaigarriak, baregarriak, lo egiteko pilulak		Antidepresiboak, estimulatzaileak	
	Gizonez ko	Emakumez ko	Gizonez ko	Emakumez ko	Gizonez ko	Emakumez ko	Gizonez ko	Emakumez ko
GUZTIRA	13,2	23,3	5,3	10,7	7,4	14,2	2,6	6,3
Andaluzia	14,5	29,4	6,2	12,2	6,2	12,0	1,6	5,0
Aragoi	10,6	20,4	4,6	11,3	7,1	11,5	2,2	6,8
Asturiasko printzea	15,5	29,8	6,3	16,9	6,1	16,7	4,1	12,0
Balear uharteak	19,1	28,3	6,2	15,0	3,1	3,9	3,1	0,8
Kanariak	14,6	26,0	7,2	14,8	9,7	22,0	4,4	10,0
Kantabria	10,3	24,3	2,7	9,9	6,5	8,8	1,7	4,5
Gaztela eta Leon	7,5	19,5	3,0	8,2	10,4	16,5	2,9	6,0
Gaztela-Mantxa	9,3	12,8	5,1	9,0	6,4	10,7	3,1	5,4
Katalunia	12,0	19,6	5,1	8,6	6,0	12,5	2,2	6,1
Valentziako Erkidegoa	12,9	21,5	4,8	9,8	11,8	17,2	4,8	7,0
Extremadura	14,3	27,6	2,8	15,6	4,5	12,1	1,3	6,0
Galizia	18,9	31,1	9,0	16,1	11,5	19,9	4,6	10,7
Madrilgo Erkidegoa	10,8	18,5	3,5	8,0	5,0	13,1	1,2	4,8
Murtziako Eskualdea	18,3	23,2	5,2	10,8	7,6	19,3	2,9	9,9
Nafarroako Foru Erkidegoa	14,9	19,0	6,3	6,3	6,7	10,9	3,1	3,5
Euskal Autonomia Erkidegoa	16,0	26,8	6,7	8,6	8,4	16,5	1,8	6,3
Errioxa	12,4	20,5	3,4	11,5	5,7	12,3	2,7	5,7

Ceuta	25,1	30,6	2,4	21,3	3,4	13,2	0,0	2,9
Melilla	11,7	18,8	2,7	6,3	0,0	4,2	0,8	0,2

Iturria: Guk prestatuta, 2014ko eta 2020ko Espainiako Osasunari buruzko Europako Inkestan oinarrituta

Horrela, estatuan eta orokorrean 15 urtetik gorako biztanleentzat, 2014an produktu horien erabilera 2020koa baino askoz handiagoa zela ikusten dugu, bai gizonezkoetan zein emakumezkoetan. Euskal Autonomia Erkidegoan ere beherakada hori gertatu da, bi urteetan zehar kontsumoa Espainiako batez bestekoaren gainetik egon arren. Lasaigarriak, baregarriak edo lo egiteko pilulak diren sendagaietarako jaisiera ia ehunekotan 8 puntukoa izan da gizonezkoen kasuan, eta ia 10 puntukoa emakumezkoen kasuan. Antidepresibo eta estimulatzaileen kasuan, Euskal Autonomia Erkidegoko gizonezkoen kontsumo-beherakada emakumezkoena baino handiagoa izan da.



Espainiarako Osasunari buruzko Europakor Inkestarekiko alderaketaren ondorio nagusiak.

- ❖ Psikofarmakoen kontsumoak (lasaigarriak, baregarriak, lo egiteko pilulak, antidepresiboak eta estimulatzaileak) behera egin du 2014tik 2020ra bitartean, orokorrean eta adin-talde guztietan eta bi sexu motetan.
- ❖ Euskal Autonomia Erkidegoak, 15 urtetik gorako biztanleriari dagokionez, Espainiako batez bestekoa baino kontsumo handiagoa du lasaigarrietan, baregarrietan eta lo egiteko piluletan.
- ❖ Hala ere, Euskadin prebalentziak behera egin du 2014-2020 bitarteko aldiarekin alderatuz.

4.4.1.3. ESTUDES.

ESTUDES estatistika bi urtean behin egiten da 1994 urte geroztik, 14 eta 18 urte bitarteko Bigarren Hezkuntzako ikasleen artean. Bere finantzaketa eta sustapena Drogei buruzko Plan Nazionalerako Gobernuaren Ordezkaritzari dagozkio, eta autonomia-erkidegoetako gobernuen (Drogei buruzko Plan Autonomikoak eta Hezkuntza Sailak) eta Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren laguntza du. ESTUDESen helburua balio handiko informazioa biltzea da, drogen kontsumoa eta beste adikzio batzuk saihesteko politikak diseinatu eta ebaluatzeko, baita horren ondoriozko arazoak ere.

Helburu orokor horretatik abiatuz, honako helburu espezifiko hauek ezartzen dira:


- ✓ Droga psikoaktibo ezberdinen kontsumo-prebalentzia ezagutzea.
- ✓ Kontsumitzaileen ezaugarri soziodemografiko garrantzitsuenak ezagutzea.
- ✓ Kontsumo-eredu garrantzitsu batzuk ezagutzea.

- ✓ Droga-abusuarekin lotutako zenbait alderdiri buruzko iritziak, ezagutzak, pertzepzioak eta jarrerak balioestea (hautemandako prestasuna, zenbait kontsumo-jokaeraren aurrean hautemandako arriskua), bai eta horiekin lotutako zenbait faktore ere.
- ✓ Ikasleek esku-hartze jakin batzuekiko duten esposizio- eta harmen-maila balioestea.

Hau da gure azterlanaren helburu nagusia, eta biltzen dituen datuengatik eta ikergai dituen biztanleengatik (14 eta 18 urte bitartekoak), zenbait ediziotako mikrodatuak erabiliko ditugu, bai nazionalak bai Euskadirako espezifikoak diren datuak, errezetadun edo errezetarik gabeko psikofarmakoen kontsumo-prebalentzia ezagutzeko.

Era berean, ikerketan zehar, eta datu berberekin, errezetadun eta/edo errezetarik gabeko kontsumo hori zehazten duten faktoreen eredu bat marrazten saiatuko gara.

Hasteko, atal honetan, kontsumoak Estatuan orokorrean eta Euskadin duen prebalentzia alderatuko dugu, parametro desberdinak alderatuz: sexua, elkarrizketatutako pertsonen adina, kontsumoaren maiztasuna eta errezetadun edo errezetarik gabeko kontsumoa.



Iturria ESTUDES 2020 txostena.


2020ko ESTUDESeko datuekin, eta aurreko taulan ikus dezakegun bezala, errezetarekin eta/edo errezetarik gabe kontsumitzen diren psikofarmakoen ehunekoa orokorrean, baxuagoa da Euskadiko 14-18 urteko biztanleen artean Estatuan adin bereko pertsonen artean jasotzen den batez bestekoa baino, edozein kontsumo-maiztasunetan.

Estatuko kontsumoarekiko alde hori handiagoa da bizitzan noizbait kontsumitzeari erreferentzia egiten zaionean. Hala ere, kontsumoaren maiztasunak gora egiten duen neurrian, Euskadiko ehunekoak Estatukoekin parekatzen dira.

Inkestatutako pertsonen sexuaren arabera aztertzen badugu, Euskadiko gizonezko eta emakumezkoen kontsumoa Estatuko gainerako lurraldeetako bano baxuagoa da kontsumo-maiztasun guztietan. EAEn, Estatuan bezala, nesken kontsumoa mutilena baino handiagoa da kasu guztietan.

Kontsumitzaileen adinari dagokionez, estatu mailan, kontsumoaren prebalentzia handiena 17 eta 18 urte bitarteko pertsonen artean dago, % 26,0koa bi adinetan. Ehuneko hori nesken artean askoz handiagoa da mutilen artean baino.

Euskadin, bizitzan noizbait errezetarekin eta/edo errezetarik gabe kontsumitzen duten ehunekorik handiena 15 eta 16 urte bitarteko pertsonen artean dagoela ikusten dugu. 15 urteko pertsonen artean, emakumezkoen arteko prebalentzia mutilena baino ehunekotan 4 puntu handiagoa da; 16 urtekoen artean, berriz, sexuaren araberako ehunekoak antzekoak dira.



Iturria ESTUDES 2020 txostena.

Erantzun duten pertsonen adinaren arabera, Euskadin ehuneko hori Estatu osoan baino handiagoa ez dela ikusten dugu, bizitzan noizbait errezetarekin eta/edo errezetarik gabe kontsumitzen denean, ezta orokorrean ere, ezta sexuen arabera ere.

Hurrengo tauletan, Euskadi eta Estatuko datu gurutzatuak bereizita jasotzen ditugu, adinaren eta kontsumo-maiztasunaren arabera kontsumoei dagokienez. Oraingo honetan, alde batetik, ESTUDESek biltzen dituen errezetadun eta/edo errezetarik gabeko eta errezetarik gabeko kontsumoak erakusten ditugu.

Psikofarmakoaren kontsumoaren prebalentzia Euskadin, sexuaren eta adinaren arabera. % kontsumo-maiztasunaren arabera. 2020.

EUSKADI	OROKORRA			14 URTE			15 URTE			16 URTE			17 URTE			18 URTE			
	Maiztasuna	Guztira	Gizonezko	Emakumezko	Guztira	Gizonezko	Emakumezko	Guztira	Gizonezko	Emakumezko	Guztira	Gizonezko	Emakumezko	Guztira	Gizonezko	Emakumezko	Guztira	Gizonezko	Emakumezko
Psikofarmakoak errezetarekin eta/edo errezetarik gabe																			
Bizitzan noizbait	13,5	10,5	16,6	12,9	10,0	15,8	9,1	7,0	11,0	15,6	15,5	15,6	16,7	10,1	23,0	11,8	5,1	20,7	
Azken 12 hilabeteak	9,7	7,0	12,4	10,3	8,2	12,3	7,4	5,6	9,0	11,1	11,2	11,0	10,7	4,7	16,4	7,4		17,2	
Azken 30 egunak	6,7	3,8	9,6	7,1	5,5	8,8	5,7	4,2	7,1	7,0	4,3	9,7	7,7	2,7	12,5	4,4		10,3	
Psikofarmakoak errezetarik gabe																			
Bizitzan noizbait	6,2	4,8	7,6	4,5	2,7	6,1	2,7	2,1	3,2	8,9	10,6	7,1	9,3%	4,1	14,5	1,5		3,4	
Azken 12 hilabeteak	4,7	3,7	5,8	3,6	1,8	5,3	2,4	2,1	2,6	6,3	7,5	5,2	7,0	3,4	10,5%	1,5		3,4	
Azken 30 egunak	2,7	1,8	3,6	2,7	0,9	4,4	1,7	1,4	1,9	2,9	3,1	2,6	4,0	2,0	5,9	1,5		3,4	

Iturria ESTUDES 2020 txostena. Euskadirako datuak.

Euskadiko nerabeen errezetarik gabeko kontsumoaren prebalentziak Estatuko prebalentziatik gertuago daude, batez ere azken 30 egunetako kontsumoaren maiztasunari dagokionez, 16 eta 17 urte bitarteko pertsonen artean.

Estatuko psikofarmakoen kontsumoaren prebalentzia, sexuaren eta adinaren arabera. % kontsumo-maiztasunaren arabera. 2020

ESTATUA	OROKORRA			14 URTE			15 URTE			16 URTE			17 URTE			18 URTE			
	Maiztasuna	Guztira	Gizonezko	Emakumezko	Guztira	Gizonezko	Emakumezko	Guztira	Gizonezko	Emakumezko	Guztira	Gizonezko	Emakumezko	Guztira	Gizonezko	Emakumezko	Guztira	Gizonezko	Emakumezko
Errezetadun eta/edo errezetarik gabeko Psikofarmakoak																			
Bizitzan noizbait	19,6	15,3	24,1	15,9	11,6	20,3	17,6	13,5	21,6	20,3	15,9	24,8	22,0	17,2	26,9	26,0	21,7	30,7	
Azken 12 hilabeteak	13,6	9,7	17,6	11,4	7,6	15,2	12,4	8,9	15,8	14,0	9,8	18,3	15,0	10,4	19,8	17,4	14,0	21,0	
Azken 30 egunak	7,5	5,0	10,0	6,6	4,4	8,8	6,8	4,6	9,0	7,4	4,7	10,3	8,2	5,4	11,1	9,4 %	7,1	11,9	
Errezetarik gabeko psikofarmakoak																			
Bizitzan noizbait	10,3	7,8	12,9	7,6	4,9	10,3	8,9	6,4	11,3	10,9	7,9	14,0	12,1	9,7	14,5	13,7	12,1	15,4	
Azken 12 hilabeteak	7,2	5,1	9,4	5,8	3,5	8,2	6,3	4,2	8,4	7,6	5,1	10,2	8,3	6,1	10,5	9,3	8,5	10,2	
Azken 30 egunak	3,6	2,6	4,7	3,0	1,7	4,2	3,5	2,3	4,6	3,4	2,3	4,6	4,1	3,0	5,3	4,6	4,8	4,5	

Iturria ESTUDES 2020. txostena.




ESTUDESekin alderatu ondoren ateratako **ondorio** nagusiak

ESTUDESen araberako konparazioa, honetarako:

- ❖ Errezetadun eta/edo errezetarik gabeko kontsumoak, Euskadiko balioak, sexuaren eta adinaren arabera, Estatuko balioak baino baxuagoak direla erakusten du.
- ❖ Errezetarik gabeko kontsumoen datuak Euskadi eta Estatuaren artean antzekoagoak dira.
- ❖ Kontsumoaren maiztasuna handitzen denean aldea ere baxuagoa da.

➤ BIZITZAN NOIZBAIT KONPARAZIOZKO ANALISIA.

Errezetadun eta/edo errezetarik gabeko psikofarmakoen kontsumoaren bilakaera. Autonomia-erkidegoen arabera. Bizitzan noizbait. %. 2006-2018.



Iturria; Guk prestatuta, ESTUDESen 2006., 2010., 2014. eta 2018. urteetako datuetan oinarrituta, Estatu osorako

Irudiak 14 eta 18 urte bitarteko pertsonen errezetadun eta/edo errezetarik gabeko psikofarmakoen kontsumoa erakusten du, 2006-2018 epe bitartean zer bilakaera izan duen autonomia-erkidegoaren arabera eta bizitzan noizbaiteko kontsumoan.

Orokorrean, guztizko kopuruekin, kontsumoaren joera 2018ra arte goranzkoa dela ikusten da, hau da, serieak jasotzen duen azken urtera arte.

Erkidegoka aztertuz gero, bilakaera desberdina da. Grafikoan dauden puntu gorriek bilakaeraren puntu altuenak markatzen dituzte. 2010ean kontsumo prebalentziaren batez besteko altuena lortu zuten sei erkidego topatzen ditugu, eta ordutik hona beren ehunekoak baxuagoak izan dira: Balear Uharteak, Kanariak, Gaztela eta Leon, Valentziako Erkidegoa, Galizia eta Melilla.

Nafarroa, aztertutako serietik, 2014an iritsi zen kontsumo-prebalentziaren gailurrera. Urte horretan, 2010ean baino % 5 puntu handiagoa izan zen. 2018an, ordea, bere zifrek batez bestekoaren azpitik kokatzen dute.

Gainerako erkidegoetan kontsumoek gora egin dute 2018an, aztertzen ari garen kopururik altuenekin eta zifra altuenak azertu ditugun zifren artean daude. Zehazki, Euskadiko hazkundea 5 hamarrenekoa izan da 2014. urtearekin alderatuz, eta urte horretako batez besteko orokorraren azpitik geratu da, % 17,3koa izan zelako.

Errezetarik gabeko psikofarmako-kontsumoaren bilakaera. Autonomia-erkidegoaren arabera. Bizitzan noizbait. %. 2014-2018.

	2006	2010	2014	2020	2006	2010	2014	2018
Guztira	7,7	10,1	7,4	7,9				
Andaluzia	8,3	10,3	7,5	7,7				
Aragoi	7,2	7,9	6,3	6,5				
Asturias	6,9	9,9	7,6	8,8				
Balear Uharteak	7,3	11,2	7,2	7,1				
Kanaria uharteak	9,1	12,3	7,1	9,3				
Kantabria	6,5	8,6	6,3	7,1				
Gaztela eta Leon	6,7	8,7	6,4	5,5				
Gaztela-Mantxa	6,3	8,8	7,2	7,7				
Katalunia	9,3	11,9	9,2	+ 10,8				
Valentziako Erkidegoa	8,7	+ 13,7	+ 9,3	9,8				
Extremadura	4,8	9,4	- 5,6	7,6				
Galizia	6,3	9,9	6,2	5,4				
Madril	7,9	10,2	7,3	8,4				
Murtzia	8,7	10,1	6,9	9,2				
Nafarroa	+ 9,8	9,7	9,6	7,6				
Euskadi	6,9	10,7	7,7	7,5				
Errioxa	6,3	7,3	6,0	7,3				
Ceuta	- 4,8	- 3,6	6,2	7,7				
Melilla	6,8	8,0	6,1	- 5,4				

Iturria; Guk prestatuta, 2006., 2010., 2014. eta 2018. urteetako ESTUDESen datuak oinarri hartuta, Estatu osorako

Bizitzan noizbait errezetarik gabe kontsumitzen diren hipnosedatzaileei dagokienez eta autonomia-erkidegoaren arabera, orokorrean errezetarik gabeko hipnosedatzaileen kontsumoaren prebalentziak goia jo zuen 2010ean, eta une horretatik aurrera behera egin du 2018ra arte.


Joera horren salbuespena bi autonomia-erkidegotan ematen da, Nafarroan -2006an izan zuen kontsumo-gailurra, eta ordutik behera egin du-, eta Ceutan -2018an izan ditu zifrarik handienak-.

Euskal Autonomia Erkidegoaren kasua estatuko batez bestekoaren antzekoa da. 2010ean bere punturik altuena aurkitu zuen, urte horretan batez bestekoa baino zifra handiagorekin, eta jaisten joan da 2018ra arte, 2 hamarren azpitik geratuz.

➤ **AZKEN 30 EGUNETAKO KONPARAZIOZKO ANALISIA.**

Jarraian, azken 30 egunetan autonomia-erkidego bakoitzeko kontsumoek izan duten prebalentzia erakusten dute mapek. Ondoren, denbora-maiztasun horren bilakaera erakusten dugu, aztertutako urtearen arabera autonomia-erkidegoek duten posizioa ezarriz.

Errezetarekin edo errezetarik gabe kontsumitzeko balio altuenak -batez besteko orokorraren balioa kontuan hartuta-, gorritz adierazita daude, eta baxuena berdez.



Iturria; Guk prestatuta, 2006., 2010., 2014. eta 2018. urteetako ESTUDESen datuak oinarri hartuta, Estatu osorako

Taulan, autonomia-erkidegoek azken 30 egunetan **errezetarekin eta/edo errezetarik gabe** hartutako psikofarmakoen kontsumoan 2006-2018 bitartean izan duten bilakaera ikus daiteke.

Denbora horretan, Euskal Autonomia Erkidegoak posizioak igotzen joan da 2006az geroztik -17. postuan zegoen gehien kontsumitzen zutenen artean-, eta 2018an bederatzigarren postura iritsi da, batez bestekoa sailkapen orokorrarekin berdinduta.

Autonomia-erkidegoen arteko rankingaren bilakaera errezetadun eta/edo errezetarik gabeko psikofarmakoen kontsumoari dagokionez azken 30 egunetan. %. 2006-2018.

	2006	2010	2014	2018				
1º	Extremadura	4,8	Gaztela eta Leon	3,4	Valentziako Erkidegoa	7,2	Asturias	7,4
2º	Katalunia	4,6	Melilla	3,5	Katalunia	7,0	Katalunia	7,3
3º	Murtzia	4,6	Gaztela-Mantxa	3,6	Ceuta	6,8	Valentziako Erkidegoa	6,8
4º	Galizia	4,1	Nafarroa	3,6	Errioxa	6,6	Madril	6,7
5º	Valentziako Erkidegoa	3,9	Kantabria	3,9	Galizia	6,5	Murtzia	6,7
6º	Madril	3,8	Aragoi	3,9	Nafarroa	6,5	Kantabria	6,3
7º	Kanariar Uharteak	3,5	Errioxa	3,9	Asturias	6,3	Melilla	6,3
8º	Asturias	3,5	Ceuta	4,0	Euskal Herria	6,2	Galizia	6,2
9º	Errioxa	3,5	Madril	4,2	Madril	5,9	Euskal Herria	6,1
10º	Kantabria	3,4	Andaluzia	4,6	Murtzia	5,9	Andaluzia	5,8
11º	Balear Uharteak	3,3	Murtzia	4,7	Andaluzia	5,8	Extremadura	5,8
12º	Andaluzia	3,3	Extremadura	4,9	Kantabria	5,8	Balear Uharteak	5,7
13º	Gaztela-Mantxa	3,1	Euskal Herria	5,2	Gaztela-Mantxa	5,7	Kanariar Uharteak	5,7
14º	Nafarroa	2,8	Balear Uharteak	5,3	Kanariar Uharteak	5,4	Aragoi	5,6
15º	Aragoi	2,8	Katalunia	5,6	Aragoi	5,3	Gaztela-Mantxa	5,6
16º	Gaztela eta Leon	2,6	Asturias	5,7	Gaztela eta Leon	5,0	Errioxa	5,3
17º	Euskal Herria	2,5	Kanariar Uharteak	5,8	Extremadura	4,9	Nafarroa	5,2
18º	Ceuta	2,4	Galizia	5,8	Balear Uharteak	4,7	Ceuta	5,2
19º	Melilla	1,9	Valentziako Erkidegoa	6,9	Melilla	3,5	Gaztela eta Leon	4,5
	Guztira	3,6	Guztira	4,9	Guztira	5,8	Guztira	6,1

Iturria; Guk prestatuta, 2006., 2010., 2014. eta 2018. urteetako ESTUDESen datuak oinarri hartuta, Estatu osorako.

Hurrengo mapak **errezetarik gabeko** hipnosedaizaileen **kontsumo**-prebalentzia erakusten du, autonomia-erkidegoka, 2018an. Batez besteko orokorra 2,8an kokatzen da, eta Euskadi balio horretara egokitzen da. Ehunekorik handienak dituzten erkidegoak gorritz ageri dira.



Iturria; Guk prestatuta, 2006., 2010., 2014. eta 2018. urteetako ESTUDESen datuak oinarri hartuta, Estatu osorako

Euskal Autonomia Erkidegoak beste autonomia-erkidego batzuekin alderatuta izan duen bilakaerari dagokionez, 2006an errezetarik gabeko psikofarmakoen kontsumoaren rankingean 15. postuan zegoela ikusten da ondorengo grafikoan, orokorra baino batez besteko baxuagoa duelarik.

Autonomia-erkidegoen arteko rankingaren bilakaera errezetarik gabeko psikofarmakoen kontsumoan azken 30 egunetan. %. 2006-2018

	2006		2010		2014		2018	
1º	Murtzia	3,4	Valentziako Erkidegoa	4,4	Valentziako Erkidegoa	3,6	Asturias	3,5
2º	Katalunia	3,2	Kanariar Uharteak	4,2	Katalunia	3,5	Kantabria	3,3
3º	Valentziako Erkidegoa	3,0	Asturias	3,5	Murtzia	3,4	Valentziako Erkidegoa	3,3
4º	Errioxa	2,9	Katalunia	3,5	Errioxa	3,4	Katalunia	3,2
5º	Ceuta	2,8	Galizia	3,4	Euskal Herria	3,3	Madril	3,2
6º	Kanariar Uharteak	2,6	Euskal Herria	3,3	Gaztela-Mantxa	3,0	Murtzia	3,2
7º	Madril	2,6	Andaluzia	3,0	Nafarroa	2,9	Melilla	3,2
8º	Balear Uharteak	2,6	Balear Uharteak	3,0	Madril	2,8	Kanariar Uharteak	2,9
9º	Aragoi	2,4	Madril	2,8	Andaluzia	2,7	Euskal Herria	2,8
10º	Andaluzia	2,3	Ceuta	2,6	Asturias	2,7	Gaztela-Mantxa	2,7
11º	Gaztela eta Leon	2,3	Gaztela eta Leon	2,5	Balear Uharteak	2,7	Errioxa	2,7
12º	Nafarroa	2,2	Murtzia	2,5	Ceuta	2,7	Andaluzia	2,5
13º	Asturias	2,1	Gaztela-Mantxa	2,4	Kanariar Uharteak	2,6	Aragoi	2,4
14º	Galizia	1,9	Kantabria	2,4	Gaztela eta Leon	2,6	Nafarroa	2,4
15º	Euskal Herria	1,9	Errioxa	2,2	Kantabria	2,5	Balear Uharteak	2,3
16º	Gaztela-Mantxa	1,8	Nafarroa	2,0	Galizia	2,4	Gaztela eta Leon	2,0
17º	Kantabria	1,7	Extremadura	1,9	Aragoi	2,3	Galizia	2,0
18º	Extremadura	1,4	Aragoi	1,9	Extremadura	2,0	Extremadura	1,9
19º	Melilla	1,2	Melilla	1,5	Melilla	1,7	Ceuta	1,5
	Guztira	2,3	Guztira	3,0	Guztira	2,8	Guztira	2,8

Iturria; Guk prestatuta, 2006., 2010., 2014. eta 2018. urteetako ESTUDES-en datuak oinarri hartuta, Estatu osorako

Joera hori 2010 eta 2014ko estatistiketan aldatu egiten da; une horretan Euskadi 6. eta 5. postuan aurkitzen da hurrenez hurren, eta kontsumoaren ehuneko orokorra autonomia-erkidegoen batez bestekoaren gainetik dago. 2018an errezetarik gabeko kontsumoak behera egin zuen eta estatuko batez besteko balioekin berdindu zen.

Nerabeek lehen aldiz kontsumitzeko duten batez besteko adinari dagokionez, 2018an batez besteko adin altuenak autonomia-erkidego guztietan daude. Izan ere, errezetadun eta/edo errezetarik gabeko kontsumitzaileen artean, adinak gora egin du konparatzen ditugun urte-tarteetan. 2010ean kontsumitzen hasteko batez besteko adinik baxuena eman zen.

Psikofarmakoen lehenengo kontsumoaren batez besteko adinaren bilakaera, autonomia-erkidegoen arabera. 2006-2018.

CCAA	Errezetarekin eta/edo errezetarik gabe				Errezetarik gabe			
	2006	2010	2014	2018	2006	2010	2014	2018
Batez besteko adina	13,6	13,5	13,9	14,0	14,1	13,8	14,2	14,3
Andaluzia	13,9	13,2	14,1	13,9	14,3	13,6	14,3	14,2
Aragoi	13,6	13,5	13,9	14,3	14,1	13,7	14,3	14,5
Asturisko Printzea	12,7	13,0	13,6	14,1	14,0	13,6	13,9	14,4
Balear Uharteak	12,5	13,5	13,9	14,1	13,1	13,9	14,2	14,2
Kanariak	14,1	13,3	13,6	13,9	14,6	13,4	14,0	13,7
Kantabria	13,8	13,7	13,7	13,5	14,7	14,3	14,3	14,1
Gaztela eta Leon	14,1	13,6	14,0	13,8	14,5	14,0	14,3	14,1
Gaztela- Mantxa	14,0	13,7	14,0	13,7	14,7	13,7	14,1	14,5
Katalunia	13,3	13,2	13,7	14,2	13,6	13,4	14,2	14,1
Valentziako Erkidegoa	12,9	13,3	13,8	13,9	13,5	13,8	14,1	14,5
Extremadura	13,5	13,8	13,8	14,2	13,9	13,8	14,6	13,9
Galizia	13,9	13,9	14,1	14,0	14,4	14,2	14,4	14,1
Madrilgo Erkidegoa	13,3	13,5	14,1	14,0	13,7	13,6	14,3	14,2
Murtziako eskualdea	14,3	13,6	13,9	14,0	14,2	14,4	14,4	14,4
Nafarroako foru Erkidegoa	13,2	13,7	13,6	13,9	14,0	14,2	14,2	14,6
Euskal Herria	13,5	13,4	13,5	14,1	13,4	14,2	14,1	14,4
Errioxa	13,4	13,4	14,0	14,1	14,9	14,1	14,3	15,2
Melilla	14,5	14,2	14,3	14,5	14,4	14,0	14,6	14,1
Ceuta	12,3	14,0	14,2	14,6	12,8	14,6	14,7	14,4

Iturria; Guk prestatuta, 2006., 2010., 2014. eta 2018. urteetako ESTUDESen datuak oinarri hartuta, Estatu osorako

Euskal Autonomia Erkidegoan joera bera izan da bi kontsumo motetan. Errezetarik gabe kontsumitzen duten pertsonen artean ere, kontsumitzen hasteko adina handiagoa izan da erkidego guztien batez besteko adina baino.



Beste **autonomia-erkidego/Hiri autonomo batzuekiko alderaketaren ondorio** nagusiak.

- ❖ Bi kontsumo motetan, prebalentziak gora egin du 2006tik 2010era bitartean. Bilakaera hori Euskadin eta Estatu osoan gertatu da, baina hemen izan da gorakada handiena.
- ❖ Errezetadun eta/edo errezetarik gabeko kontsumoan, emakumezkoen kontsumoa gizonezkoena baino handiagoa izan da beti.
- ❖ Errezetarik gabeko kontsumoan, emakumezkoen kontsumoak mutilena baino handiagoa izaten jarraitzen du 2014ra arte, eta une horretan joera alderantzikatu egiten da, eta urte horretan eta 2018an, Euskadin, gizonezkoen kontsumoa handiagoa da.
- ❖ Euskadi 2006an autonomia-erkidegoen kontsumo-rankingaren beheko erdialdean egotetik, 2018an goiko erdialdean egotera pasatu da bi kontsumo-tipologietan.
- ❖ Kontsumitzen hasteko batez besteko adinak kontsumo mota guztietan gora egin du Estatu osoan eta Euskadin: errezetarekin eta/edo errezetarik gabe kontsumitzeko 14,1ekoa urte izanik eta errezetarik gabe kontsumitzeko 14,4koa izanik.


4.4.2. Psikofarmakoen kontsumo bilakaera Euskadin. 2014-2020. ESTUDES.

Psikofarmakoen prebalentziak izan duen bilakaeran analisia zentratuz, 2014tik 2020ra bitarteko datuak hartzen ditugu erreferentziatzat. Azken datu horiek ez daude oraindik autonomia guztietarako eskuragarri, baina bai Euskadirako.

4.4.2.1. Errezetadun eta/edo errezetarik gabeko psikofarmakoen kontsumo prebalentziaren bilakaera

Neska eta mutilen datu guztiak batera hartuta eta kontsumo maiztasunaren arabera, aztertutako seriean, errezetadun edo errezetarik gabeko prebalentziak bizitzan noizbait eta azken 12 hilabeteetan kontsumitu dutenen artean behera egin duela ikusten dugu. Hala ere, 2020an, azken 30 egunetan egunero kontsumitu dutenen ehunekoak (2016ko estatistikatik jasotzen da datu hori) gora egin du 2018arekin alderatzen badugu.


Errezetadun edo errezetarik gabeko lehenengo kontsumoaren adina pixkanaka handituz joan da, eta 2020an, batez beste 14,2 urtekoa izan da.



Iturria: ESTUDES Euskadirako 2014, 2016,2018 eta 2020ko edizioak..

Errezetarekin edo errezetarik gabe kontsumitzen duten **mutilen** artean, 2018ko kontsumoaren prebalentziak kontsumo-maiztasun guztietan gora egin du, nabarmen, aurreko estatistikarekin alderatuta. Hala ere, 2020ko datuetan beherakada bat ikusten da.

Mutilek kontsumitzen hasteko duten adinak gora egin du, baina 2020an Euskadi osoan kontsumitzen hasteko batez besteko adin orokorraren azpitik dago.




Iturria: ESTUDES Euskadirako 2014, 2016,2018 eta 2020ko edizioak.

Nesken artean, 2018. urtean errezetadun eta/edo errezetarik gabeko kontsumoan ikusitako beheranzko joera 2020an alderantzikatu egin dela erakusten du bilakaerak. Bizitzan noizbait izandako kontsumo-maiztasunean, neskek mutilek baino prebalentzia handiagoa zuten 2014an eta 2016an, baina ez gainerako maiztasunetan, horietan gizonen kontsumoa handiagoa zelako. 2018an, bi sexu moten artean balioak nahiko hurbiltzen dira,

eta eguneroko kontsumoan mutilak gainera kokatzen dira. 2020ko datuetan, ordea, adin horietako emakumezkoen kontsumoa gizonetzkoena baino handiagoa izan da, denbora-maiztasun guztietan.

Kontsumitzeko lehenengo adinari dagokionez, nesken kasuan mutilena baino handiagoa da, eta 2020an 14,5 urte bitartean mantendu da.



Iturria: ESTUDES Euskadirako 2014, 2016, 2018 eta 2020ko edizioak.


4.4.2.2. Errezetarik gabeko psikofarmakoaren kontsumo-prebalentziaren bilakaera

Errezetarik gabeko psikofarmakoaren kontsumoari buruzko datu orokorrek Euskadin 2014an eta 2018an kontsumo-maiztasun guztietan izandako kontsumo-ehunekorik handienak erakusten dituzte. 2020an, bizitzan noizbait eta azken 12 hilabeteetan kontsumitu duten nerabe kopuruaren beherakada garrantzitsua izan da, aztertutako serieko zifrarik baxuenak eman dira.


Azken 30 egunetako kontsumoari eta eguneroko kontsumoari dagokienez, zifrak mantentzen direla esan dezakegu, balioak hamarren batzuk gora behera direlako.

Errezetarik gabeko lehenengo kontsumoaren batez besteko adinari dagokionez, bilakaerak gora egin duela erakusten du 2020an bataz beste 14,8 urtera iritsi arte.

Errezetarik gabeko psikofarmakoaren kontsumoaren bilakaera Euskadin (2014-2020)



Errezetarik gabe kontsumitzen hasteko adina




Iturria: ESTUDES Euskadiraiko 2014, 2016,2018 eta 2020ko edizioak.


Mutilen artean, errezetarik gabeko psikofarmakoaren kontsumoa, 2018an bizitzan noizean behin eta azken 12 hilabeteetan nabarmen areagotu zena, 2020an beherakada nabarmena ikusi dugu maiztasun horietan. Azken 30 egunetako prebalentziak eta eguneroko prebalentziak, ordea, aurreko edizioen antzeko balioetan jarraitzen du.

Errezetarik gabe kontsumitzen hasteko adinari dagokionez, mutilen artean gora egin du erreferentziako urteetan, eta 14,5 urtekoa izan da 2020an, batez besteko orokorra baino hamarren batzuk baxuago.

Errezetarik gabeko psikofarmakoaren kontsumoaren bilakaera mutilen artean Euskadin (2014-2020)



Errezetarik gabe kontsumitzen hasteko adina mutiletan




Iturria: ESTUDES Euskadiraiko 2014, 2016,2018 eta 2020ko edizioak.

Emakumezko nerabeen artean, esan dezakegu errezetarik gabeko kontsumoaren prebalentziak bizitzan noizbait behera egiteko joera, 2018an hasitakoa 2020an alderantzikatu egin dela, eta 2014ko balioetara itzuli da.

Orokorrean, nesken kontsumoak gora egin du 2020an denbora-maiztasun guztietan, mutilen kopuruak gaudituz, hau ez zen 2014tik gertatzen.

Errezetarekin kontsumitzen hasteko nesken adinari dagokionez gora egiten jarraitu du, eta 2020an 15 urtekoa izan da, mutilen adina baino pixka bat handiagoa.



Iturria: ESTUDES Euskadirako 2014, 2016, 2018 eta 2020ko edizioak.



Euskadiko kontsumo prebalentziaren 2014-2020 aldiko bilakaeraren ondorio nagusiak.

- ❖ Errezetarekin eta/edo errezetarik gabe egindako kontsumoak behera egin du noizbehinkako maiztasunetan, eta gora egin du ohikoenetan.
- ❖ Errezetadun eta/edo errezetarik gabeko kontsumoan bilakaera desberdina izan da mutilen eta nesken artean. Kontsumo-prebalentziak behera egin du mutilen artean kontsumo-maiztasun guztietan, eta neskek gora egin dute kontsumo-maiztasun guztietan, 2018tik 2020 bitartera.
- ❖ Errezetarik gabeko kontsumoak behera egin du maiztasun guztietan, baina kontsumo handieneko maiztasunetan ez da ia antzematen.
- ❖ Errezetarik gabeko kontsumoan, beste tipologian bezala, mutilen kontsumoa behera joan da, eta neskena, ordea, gora.

ESTUDES 2022 txostenak ondorioztatzen duenez, 2020an egindako estatistikarekin, eta Estatu osorako, gazteek (14-18 urte) gehien kontsumitzen dituzten drogak legezko drogak dira (alkohola eta tabakoa), eta, ondoren, kanabisa eta medikuaren errezetarik gabeko hipnosedatzaileak. Legezko drogen kontsumoa (alkohol, tabakoa eta hipnosedatzaileak) emakumezkoen artean hedatuago dago, eta legez kanpoko drogen kontsumoa gizonezkoen artean hedatuago dago.

Ikasleek proportzio handiena kontsumitzen duten substantziak hipnosedatzaileak dira alkohola, tabakoa eta kanabisaren ondoren. 2021ean, 14-18 urte bitarteko gazteen % 10,3k hipnosedatzaileak kontsumitu ditu noizbait (errezetarik gabe), % 7,2k azken urtean eta % 3,6k azken hilabetean. Kontsumoa nagusiagoa da emakumezkoen artean. errezetarik gabeko hipnosedatzaileen kontsumoak goranzko joera txiki bat du 14-18 urte bitarteko gazteen artean. Hori bera gertatzen da Euskadin, non mutilen kontsumoak behera egin duen, eta nesken kontsumoak, berriz, gora.

Hipnosedatzaileei dagokienez (bai errezetarekin eta/edo errezetarik gabe), kontsumitzen hasteko adinak nolabaiteko egonkortasuna mantentzen du 2019. urtearekin alderatuta, 14,0 urtetik 14,1 urtera igarotzen delako.

4.5. Osasun-egoeraren pertzepzioa pandemia bitartean eta ondoren, eta kontsumoa. Drogak eta Eskola 2022.


Azterlanaren puntu honetara iritsita, eta kontsumoaren kausalitatea hobeto azal dezaketen aldagaiak bilatu aurretik, Euskadiko 14-18 urte bitarteko gazteen psikofarmakoen kontsumo-prebalentziari buruzko datuak bilduko ditugu. Datu horiek Deustuko Unibertsitateko Droga-mendetasunen Institutuak argitaratutako Drogak eta X Eskola estatistikan jaso dira, 2022an, eta pandemiarekin zerikusia dute.

Aldez aurretik, urte honetan errezetadun eta errezetarik gabeko kontsumoaren prebalentzia-datuak aipatu ditugu, eta datu horiek areagotu egin direla adierazi dugu, batez ere errezetarik gabeko kontsumoan eta azken 5 urteetan emakumezkoen artean. Aldi berean, gizonezkoen kontsumoak behera egin du. Badirudi aurreko epigrafeko kontsumoaren bilakaeran ikusten genuen joera bat dela.

Deustuko Unibertsitateko Droga Mendekotasunen Behatokiaren Drogak eta Eskola galdetegiak, bere azken edizioan, pandemiaren garaian eta ondoren COVID-19ak eragindako aldarreagatik egin die kontsulta gazteei. Erantzun horiek adinarekin eta sexuarekin gurutzatu ditugu, errezetadun eta errezetarik gabeko kontsumitzaileen alderdiak kontuan hartuta.

Orokorrean, COVIDak eragindako pandemian, aldarreari buruzko balorazio txarrenak 17 eta 18 urteko mutilen eta nesken artean aurkitzen ditugu. Errezeta duten kontsumitzaileen artean, 17 urteko gazteak dira gaizki edo oso gaizki sentitu zirenak neurri handiago batean.

Psikofarmakoak errezetarik gabe kontsumitzen dituzten pertsonen artean, gogo-aldarteak gehien definitzen dituzten balioak bitartekoak dira; horrela, 15 urteko gazteen artean inor ez zen oso ondo sentitu, eta 18 urtekoen artean inor ez zen ez ondo eta ez gaizki sentitu.



Guk prestatuta, Drogak eta Eskola 2022ko datuetan oinarrituta


Gogo-aldartearen pertzepzioa COVID-19aren pandemian zehar, adinaren arabera

	Orokorra, adinaren arabera						Errezeta duten kontsumitzaileak, adinaren arabera					Errezetarik gabeko kontsumitzaileak, adinaren arabera				
	Orokorra	14	15	16	17	18	14	15	16	17	18	14	15	16	17	18
Oso gaizki	9,1	7,7	7,6	8,9	10,5	14,1	5,6	19,5	22,4	25,9	10,5	6,7	28,6	0	12,5	11,1
Gaizki	12,3	10	11,7	11,1	16,3	13,4	30,6	19,5	13,8	25,9	21,1	20	14,3	13,6	25	0
Ez ondo ez gaizki	26,9	23,8	28,7	27,9	26,7	28,6	33,3	31,7	31	24,1	26,3	26,7	35,7	27,3	20,8	44,4
Ongi	27,8	27,8	30,3	28,5	26,2	21,9	16,7	12,2	12,1	14,8	26,3	20	21,4	22,7	20,8	33,3
Oso ongi	17,7	23,1	17,1	17,4	14,6	12,6	11,1	14,6	6,9	7,4	10,5	20	0	18,2	16,7	0
Ed/Ee	6,3	7,7	4,6	6,4	5,6	9,3	2,8	2,4	13,8	1,9	5,3	6,7	0	18,2	4,2	11,1

Guk prestatuta, Drogak eta Eskola 2022ko datuetan oinarrituta

Pandemiaren ondorengo gogo-aldartearen pertzepzioa, hurrengo grafikoan eta dagokion taulan ikusten den bezala, balio orokorretan nahiko desberdina da aurreko aldiarekin alderatuta. Gogo-aldartearen pertzepzioa, oro har, positiboagoa da adin guztietan.

Nerabeen artean gogo-aldarte altuenen pertzepzioari dagokionez portzentaje negatiboak dituzten sentazioak errezetarekin edo errezetarik gabe kontsumitzen dutenen artean daude, batez ere 17 urteko elkarriketatuen artean, eta 15 urtekoen atzetik.



Guk prestatuta, Drogak eta Eskola 2022ko datuetan oinarrituta

	Orokorra adinaren arabera						Errezeta duten kontsumitzaileak, adinaren arabera					Errezetarik gabeko kontsumitzaileak, adinaren arabera				
	Orokorra	14	15	16	17	18	14	15	16	17	18	14	15	16	17	18
Oso gaizki	5,2	4,8	5,6	5,4	5,3	4,5	19,4	17,1	17,2	18,5	15,8	13,3	21,4	9,1	8,3	0
Gaizki	8,9	8,2	8,7	8,4	11	7,4	11,1	19,5	13,8	18,5	5,3	6,7	28,6	13,6	37,5	11,1
Ez ondo ez gaizki	18,5	17,5	17,2	15,8	21,7	24,9	25	22	17,2	24,1	31,6	33,3	7,1	13,6	12,5	33,3
Ongi	31,8	28,3	34,4	32,8	32,1	30,9	11,1	19,5	25,9	25,9	26,3	26,7	35,7	18,2	20,8	33,3
Oso ongi	29,2	33,2	29,7	30,9	24,8	22,7	30,6	19,5	12,1	11,1	15,8	6,7	7,1	27,3	16,7	11,1
Ed/Ee	6,4	8,1	4,5	6,7	5,1	9,7	2,8	2,4	13,8	1,9	5,3	13,3	0	18,2	4,2	11,1


Guk prestatuta, Drogak eta Eskola 2022ko datuetan oinarrituta

Pandemian zehar izandako aldarteari buruzko pertzepzioari dagokionez, genero-ikuspegitik eta orokorrean neskek mutilak baino gaizkiago edo askoz ere gaizkiago sentitzen zirela ikusten dugu. Psikofarmakoak kontsumitzen ez dituztenen artean ere proportzio hori ikusten da.

Kontsumitzaileen artean, errezetarekin kontsumitzen duten neskek okerrago sentitu ziren kontsumitzen duten mutilak baino, eta beren pertzepzio negatiboaren ehunekoak handiagoak izan ziren orokorra eta kontsumitzen ez dutenak baino.

Errezetarik gabeko kontsumoaren kasuan, mutilen % 10,3 oso gaizki definitu ziren, ehuneko handiagoa negatiboaren artean.


PANDEMIAN ZEHAR OSASUN-EGOERARI BURUZKO PERTZEPZIOA, SEXUAREN ARABERA



Guk prestatuta, Drogak eta Eskola 2022ko datuetan oinarrituta.

Pandemiaren ondoren, gogo-aldartearen pertzepzioak orokorrean hobera egiten du, ondo edo oso ondo sentitzen direnen ehunekoak batzen baditugu. Hala ere, kontsumitzen duten pertsonen artean, gaizki edo oso gaizki sentitzearen sententziarik handienak ematen jarraitzen dira. Errezeta duten kontsumitzaileen artean, emakumezkoak mutilak baino apur bat okerrago daude. Errezetarik gabeko kontsumoaren eta alderantzizkoaren artean, mutilak okerrago sentitzen dira, pandemiaren unetik gertu dauden balioekin.

OSASUN-EGOERARI BURUZKO PERTZEPZIOA PANDEMIAREN OSTEAN SEXUAREN ARABERA



Guk prestatuta, Drogak eta Eskola 2022ko datuetan oinarrituta

4.6. Azalpen-eredu teoriko bat eraikitzea.

Azalpen-eredu teoriko honen eraikuntza **kausalitate anizkoitzaren printzipiotik** abiatzen da, zeinen efektuak, eskuarki, ez dira kausa bakar baten ondorio, faktore anitzen gertakariaren ondorio baizik. Arazo sozialen ikerketan, zerk eragiten dituen eta zer harreman duten elkarren artean jakitea ezinbestekoa da, zer ezaugarri pertsonal edo ingurumen-ezaugarri dituzten eta/edo jokaera jakin batzuk errazten dituzten.

Hori egiteko erabili den tresna Bigarren Hezkuntzako Drogen Erabilerari buruzko Espainiako Inkestaren (ESTUDES 2020) 2020ko azken ediziotik dator, analisisa egiteko Euskal Autonomia Erkidegoan jasotako datuak hautatuz.

Egindako kontrolen ondoren, lagina 1204 erregistroz osatuta dago, eta mutilen eta nesken arteko proportzioa ia % 50ekoa da. (600 gizonezko eta 604 emakumezko).

ESTUDES 2020/21 galdetegiak legezko edo legez kanpoko drogen kontsumoari buruzko informazioa ez ezik, elkarrizketatutako pertsonen jokaerari eta pentsatzeko moduari buruzko beste gai orokor batzuei buruzko informazioa ere biltzen du. Gure lanaren ondorioetarako, honako talde hauetan banatuko ditugu:

- identitatea: adina, egiten duten irakaskuntza mota, ikastetxearen titulartasuna, bizi diren lekuaren ezaugarriak, jaioterria.
- legezko eta/edo legez kanpoko drogen kontsumoaren maiztasuna
- aisialdiaz gozatzeko modu desberdinak
- gurasoekiko harremana
- honako honi buruzko pertzepzioa:
 - drogak lortzeko erraztasuna
 - gaiari buruz duten informazioa
- diruarekin jokatzea
- Interneten erabilera
- kontsumitzeko arriskuari buruz duten pertzepzioa

Psikofarmakoen kontsumoa berariaz **honako galdera hauen bidez** agertzen da inkesta honetan:

- Lasaigarri/baregarri (nerbioak edo antsietatea lasaitzeko pilulak) eta lo eragilei buruz (lo egiteko pilulak)
 - Bizitzan inoiz kontsumitu al duzu?
 - Azken 12 hilabeteetan inoiz kontsumitu al duzu?
 - Azken 30 egunetan inoiz kontsumitu al duzu?
 - Azken 30 egunetan egunero edo ia egunero kontsumitu al duzu?
 - Zure bizitzan lehenengo aldiz kontsumitu zenuen adina
- Errezetarik gabeko lasaigarri/baregarri (nerbioak edo antsietatea lasaitzeko pilulak) eta lo egiteko pilulei buruz
 - Bizitzan inoiz kontsumitu al duzu?
 - Azken 12 hilabeteetan inoiz kontsumitu al duzu?
 - Azken 30 egunetan inoiz kontsumitu al duzu?
 - Azken 30 egunetan egunero edo ia egunero kontsumitu al duzu?
 - Zure bizitzan lehenengo aldiz kontsumitu zenuen adina

Bloke honetan, "errezetarik gabe"-ek zer esan nahi duen zehazten da:

- Medikuak familiako beste pertsona bati hartzeko agindu dio, eta zuk noizean behin hartzen dituzu.
- Medikuak noizbait errezetatu zizun, baina zure medikuaren kontrolik gabe hartzen jarraitu duzu
- Errezeta medikoa ez den beste bitarteko batzuen bidez lortu duzu.
- Galdera multzo bat da elkarrizketatutako pertsonen osasun-arazoei edo bestelako arazoei buruz duten iritziari buruzkoa, jokabide hauetako bakoitza (gutxi gorabehera astean behin edo maizago) egiteak zer esan nahi ote duen: lasaigarri/baregarri edo lo eragileak kontsumitzea, normalean, honako erantzun-aukera hauekin:
 - Arazo gutxi edo bat ere ez
 - Arazo dezente edo asko
 - Ez daki
- Galdera multzo bat da elkarrizketatutako pertsonen substantzia hauetako bakoitza lortu nahi izango balute izango lituzketen zailtasunei buruz duten iritziari buruzkoa: lasaigarri/baregarri edo lo eragileak, eta erantzuteko aukera hauek daude:
 - Zaila edo kasik ezinezkoa
 - Erraza edo oso erraza
 - Ez daki
- Galdera multzo bat da normalean irteten diren eta erlazionatzen diren lagun eta ikaskideek azken 30 egunetan egin dutenari buruzkoa: Lasaigarri, baregarri edo lo eragileak hartu izana. Erantzuteko aukera hauek daude:
 - Guztiak edo gehienak
 - Baten bat
 - Bat ere ez

Azaldu beharreko aldagaiak psikofarmakoen kontsumoa orokorrean eta errezetarik gabekoak dira. Laginaren tipologia bat zehaztu dugu kontsumo-maiztasunaren arabera, legez kanpo kontsumitzen dutenen eta orokorrean kontsumitzen dutenen artean bereizita.

Lehen bezala, **azken 30 egunetako kontsumoaren maiztasuna** hartu dugu erreferentziatzat; horrek esan nahi du azken 12 hilabeteetan noizbait egiten den kontsumoa baino maizago eta/edo ohikoagoa dela, eta agian ez dela berriro errepikatu. Gainera, azken 30 egunetako kontsumoen balioak beste ikerketa batzuetara gehien hurbiltzen gaituztenak dira.

Pertsona hauek hartuko ditugu kontuan:

- ❖ **Psikofarmakoen kontsumitzaileak orokorrean**, azken 30 egunetan noizbait baino maiztasun handiagoarekin hartu dituztela onartu dutenak, hau da, azken 30 egunetan noizbait kontsumitu duten

galderari baiezkoa erantzun diotenak (aldi metagarriak direnez, egunero edo ia egunero kontsumitzen dutenak ere sartzen dira).

- ❖ **Orokorrean psikofarmakoak kontsumitzen ez dituztenak** azken 30 egunetan noizbait baino maiztasun txikiagoarekin hartu dituztela diotenak, hau da, azken 12 hilabeteetan inoiz edo noizbait kontsumitu ez dutela erantzun dutenak.
- ❖ **Errezetarik gabe psikofarmakoak kontsumitzen dituztenak**, azken 30 egunetan noizbait baino maiztasun handiagoarekin hartu dituztenak, hau da, azken 30 egunetan errezetarik gabeko kontsumoari buruzko galderari baiezkoa erantzun diotenak (aldi metagarriak direnez, egunero edo ia egunero kontsumitzen dituztenak ere sartzen dira).
- ❖ **Psikofarmakoak errezetarik gabe kontsumitzen ez dituztenak**, azken 30 egunetan noizbait baino maiztasun txikiagoarekin hartu dituztela onartzen dutenak, hau da, azken 12 hilabeteetan errezetarik gabe edo noizbait kontsumitu ez dutela erantzun dutenak.

Datuetako tabulazio eta analisi guztiak **sexuaren arabera bereizita** egingo dira.

Erabilitako teknikak hauek dira:

- ✓ **Maiztasun gurutzatuen azterketa.** Neska-mutilen ezaugarri soziologikoen eta kontsumo-tipologiaren arteko erlazioak eta haien arteko lotura-maila ezagutzeko
- ✓ **Faktorizazioa.** Daukagun datu multzoa murriztea da helburua, informazio kopuru txikiagoan, baina ordezkari handiagoarekin. Helburua, laburtzea da, ulertzeko.
- ✓ **Arrisku-faktoreak.** Fenomeno bat gertatzeko probabilitatea handitzen duten pertsonen ezaugarriak, pertsonalak, familiakoak, taldekoak edo sozialak arrisku-faktoretzat hartzen ditugu. Jokabide baten garapena aurreikusteko erraztasuna ematen duen ezaugarri bat; gizabanakoak jokabide horien aurrean kalteberatasun-egoeran jartzen dituen aldagai bat.

4.6.1. Euskadin gaur egun kontsumitzen diren substantzien prebalentzia 14-18 urteko gazteen artean.

Lagineko pertsonen ezaugarriak deskribatu aurretik, ESTUDES inkestan jasotako substantzia psikoaktibo bakoitzaren prebalentzia zein den erakustea interesgarria dela iruditzen zaigu, EAEko **14 eta 18 urte bitarteko pertsonen artean psikofarmakoek kontsumoak beste substantzia batzuekin alderatuz duen posizioaren ideia bat egiteko, 2020ko datuen arabera.**

Iturria: Guk prestatuta, ESTUDES 2020 oinarri hartuta Euskadirentzat.

Taula orokorrean ikus daitekeenez, lasaigarriak/baregarriak 4. postuan daude gehien kontsumitzen diren substantzien artean. Alkoholak, tabakoak eta

Substantzia mota	Orokorra	Gizonezko	Emakumezko	
1 ^o Alkohola	%24,3	%22,7	%25,8	
2 ^o Tabakoa	%14,3	%13,0	%15,6	
3 ^o Haxixa	%13,7	%14,7	%12,7	
4 ^o Lasaigarriak/baregarriak	%6,7	%3,8	%9,6	
5 ^o Errezetarik gabeko substantzia estimulatzaileak azterketarako	%6,4	%5,2	%7,6	
6 ^o Zigarreta elektronikoak	%4,2	%5,2	%3,1	
7 ^o Errezetarik gabeko lasaigarriak/baregarriak	%2,7	%1,8	%3,6	
8 ^o Legez kanpoko drogen eragina imitatzen duten substantzia berriak	%1,3	%1,5	%1,2	
9 ^o Kokaina hautsa	%0,7	%1,2	%0,2	
10 ^o Estasia	%0,6	%0,8	%0,3	
Kontsumo txikiagoa duten beste substantzia batzuk	Opioideak	%0,5	%0,7	%0,3
	Basea	%0,4	%0,7	%0,2
	Heroina	%0,4	%0,7	%0,2
	Inhalagarri lurrunkorrak	%0,4	%0,5	%0,3
	GHB	%0,4	%0,7	%0,2
	Haluzinogenoak	%0,3	%0,5	%0,2
	Metanfetamina	%0,3	%0,5	%0,2
	Speed	%0,2	%0,3	%0,2
	Perretxiko haluzinogenoak	%0,2	%0,3	%0,2
	Esteroide anabolizatzaileak	%0,2	%0,3	%0,2

haxixak bakarrik gainditzen dituzte substantzia horiek, baina askoz gutxiago kontsumitzen dira, eta zigarro elektronikoek gainera daude.

Errezetarik gabe direnean, kontsumoaren prebalentziak 7. postuan kokatzen ditu.

Ohar metodologikoa:

Substantzia hori azken 30 egunetan gutxienez noizbait hartzen dutela erantzun dutenean kontsumotzat hartzen da. Salbuespen hauekin:

Alkohola: Hilean 4-5 egunetan edo gehiagotan erantzun badu, kontsumitzen duela uste dugu

Tabakoa: Astean egunen batean edo gehiagotan erretzen badu, erretzailea dela uste dugu

Haxixa. Galdetegiko galdera erretzen zuen ala ez zen.

Ikasketetarako substantzia estimulatzaileak errezetarik gabe. Galdetegian bizitzan inoiz egin duen ala ez galdetzen zitzaion.

Neska eta mutilen arteko aldeak Rankingean

Mutilen Rankinga:

- 1^o **Alkohola**
- 2^o **Haxixa**
- 3^o **Tabakoa**
- 4^o **Errezetarik gabe substantzia estimulatzaileak ikasketetarako**
- 5^o **Zigarreta elektronikoak**
- 6^o **Lasaigarriak/baregarriak**
- 7^o **Lasaigarriak/baregarriak errezetarik gabe**
- 8^o **Legez kanpoko drogen eragina imitatzen duten substantzia berriak**
- 9^o **Kokaina hautsa**
- 10^o **Estasia**

Nesken Rankinga:

- 1^o **Alkohola**
- 2^o **Tabakoa**
- 3^o **Haxixa**
- 4^o **Lasaigarriak/baregarriak**
- 5^o **Errezetarik gabe substantzia estimulatzaileak ikasketetarako**
- 6^o **Lasaigarriak/baregarriak errezetarik gabe**
- 7^o **Zigarreta elektronikoak**
- 8^o **Legez kanpoko drogen eragina imitatzen duten substantzia berriak**
- 9^o **Estasia**
- 10^o **Opioideak**

Nesken artean, errezetarekin edo errezetarik gabe, lehenengo hirurekin alderatuta aldea askoz txikiagoa da orokorra baino, psikofarmakoak dira gehien erabiltzen den laugarren substantzia, eta mutilen artean, berriz, 6. postuan dago.

Substantzia horien errezetarik gabeko kontsumoa 6. eta 7. postuetan geratu da, hurrenez hurren, mutilen eta nesken kasuan.

4.6.2. Kontsumitzaileen profila ESTUDES 2020.

Kontsumoarekiko jarrera zehaztu dezaketen faktoreak aztertu aurretik, Euskadin inkestari erantzun dioten pertsonen ezaugarrien deskribapena aurkezten dugu.

Hasteko, errezetarekin edo errezetarik gabe azken 30 egunetan kontsumitu dutela dioten pertsonen ezaugarri soziodemografikoak jakinaraziko ditugu, eta errezetadun edo errezetarik gabeko kontsumitzaileak ez diren pertsonen ezaugarriekin alderatuko ditugu, horrela haien arteko antzekotasunak edo desberdintasunak ikusi ahal izango ditugu.

- Lehen taula hauetan erakusten ditugun aldagaiak honako hauek dira: adina, sexua, jaiotze-herrialdea, bizi diren probintzia, bizi diren udalerriko habitata, egiten duten irakaskuntza mota eta ikasten duten ikastetxearen titulartasuna.

Errezetadun eta/edo errezetarik gabeko psikofarmakoen tipologiarako ezaugarri pertsonalen maiztasunen banaketa.

	Guztira			Psikofarmakorik kontsumitzen ez dutenak*			Psikofarmakoak kontsumitzen dituztenak *		
	Orokorra	Gizonezko	Emakumezko	Orokorra	Gizonezko	Emakumezko	Orokorra	Gizonezko	Emakumezko
Lagina guztira	1204	600	604	1120	575	545	81	23	58
Adina									
14 urte	18,6	18,3	18,9	18,6	18,1	19,1	19,8	26,1	17,2
15 urte	24,7	23,7	25,7	24,8	23,5	26,2	21,0	26,1	19
16 urte	26,2	26,8	25,5	26,1	26,6	25,5	27,2	30,4	25,9
17 urte	24,9	24,7	25,2	24,7	25	24,4	28,4	17,4	32,8
18 urte	5,6	6,5	4,8	5,8	6,8	4,8	3,7		5,2
Jaiotze-herrialdea									
Espainia	93,8	93,7	93,9	93,6	93,6	93,6	96,3	95,7	96,6
Beste lurralde bat	6,1	6,3	5,8	6,3	6,4	6,1	3,7	4,3	3,4
